



**HEZKUNTZA-ARLOKO PREBENTZIO- ETA
JARDUN-PROTOKOLOA, GERTA DAITEZKEEN
HAURREN ETA NERABEEN BABESGABETASUN,
TRATU TXAR, SEXU-JAZARPEN ETA SEXU-
ABUSU EGOERETARAKO,**

ETA

**HEZKUNTZA-ARLOAREN ETA ADINGABEAK
BABESTEKO ESKU HARTZEN DUTEN AGENTEEN
ARTEKO LANKIDETZA ETA KOORDINAZIORAKO**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2016

Lan honen erregistro bibliografikoa kontsultatu daiteke
Eusko Jaurlaritzaren Liburutegi Nagusian:
<http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Dokumentuaren egileak:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila
Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila
Segurtasun Saila
Osasun Saila
Arabako Gizarte Zerbitzuak
Bizkaiko Gizarte Zerbitzuak
Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuak
Gasteizko oinarrizko Gizarte Zerbitzuak
Bizkaiko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak
Donostiako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak
EUDELen Gizarte Zerbitzuetako ordezkaria
Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltza Nagusia

Edizioa:
1.a, 2016ko azaroa

Ale kopurua:
600 ale

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa.
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.

Internet:
www.euskadi.net

Argitaratzailea:
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Inprimatzailea:
Eusko Jaurlaritzaren Inprenta eta Erreprografia Zerbitzua.
Lege Gordailua: xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	1
1. SARRERA ETA KONTZEPTU OROKORRAK	2
1.1. Jardun- eta prebentzio-protokolo honen helburua eta elementuak	2
1.2. Haurren babesgabetasunaren eta adingabeen aurkako tratu txarren, sexu-jazarpenaren eta sexu-abusuen artean dauden desberdintasunak	3
1.3. Eskola-esparruan antzemandako haur eta nerabeen babesgabetasun-egoeren eta tratu txarren, sexu-jazarpenaren eta/edo sexu-abusuaren definizioa eta ezaugarriak	4
1.4. Egoera motak.....	5
1.5. Erreferentziako araudia	6
1.6. Jarduteko printzipio orokorrak	7
2. PREBENTZIO-JARDUKETAK ESKOLAN	9
2.1. Irakasleentzako prestakuntza: arrisku-adierazleak, jarduteko prozedura... ..	9
2.2. Familientzako informazioa eta prestakuntza	9
2.3. Ikasleentzako prestakuntza: hezkuntza afektibo-sexuala, programa espezifikoak.....	9
3. HEZKUNTZA EREMUAN JARDUTEKO PROZEDURA	10
3.1. Eskolaren jarduketak gerta daitezkeen babesgabetasun-egoeretan (familiak ez du zaintzen)	10
3.1.1. Babesgabetasun-egoerak antzematea	10
3.1.2. Gizarte-zerbitzuei jakinaraztea	14
3.1.3. Informazio-trukea hezkuntza-zerbitzuen eta gizarte-zerbitzuen artean	17
3.1.4. Ikastetxearen lankidetzeta, adingabeak babesteko neurriak hartzeko	19
3.1.5. Eskola-absentismo egoeren aurrean jardutea	20
3.2. Eskolako tratu txarrak, sexu-jazarpena eta/edo sexu-abusua geldiarazteko jarduketak	21
3.2.1. Eskolako adingabeen tratu txar, sexu-jazarpen eta/edo -abusu egoerak antzematea..	21
3.2.2. Hirugarrenek (familia barne) tratu txarrak, jazarpena eta/edo sexu-abusuak gertatu direla jakinaraztea edo salaketa jartzea zentroko langile baten aurka.	24
3.2.3. Ikastetxeak gurasoetako batek eragindako (besteak jakin gabe) tratu txar, sexu-jazarpen eta/edo sexu-abusuen ustezko kasu baten berri izatea	24
3.2.4. Ikastetxeak jakitea ikastetxetik kanpoko langile baten kontra tratu txar, sexu-jazarpen eta/edo sexu-abusuengatik salaketa judiziala dagoela	25
4. HEZKUNTZA ARLOAN ESKUMENA DUEN SAILAREN ETA OSASUN-ZERBITZUEN ARTEKO KOORDINAZIOA	26
4.1. Premiaz jarduteko eskatzen duten lesio fisikoak edo egoerak antzematea	26
4.2. Premiazko osasun-jarduketa behar ez duten egoerak.....	26

5. HEZKUNTZA ARLOAN ESKUMENA DUEN SAILAREN ETA ERTZAINZAREN/POLIZIAREN ARTEKO KOORDINAZIOA.....	27
5.1. Sarrera.....	27
5.2. Prozedura eta koordinazio-jarraibideak.....	27
5.3. Poliziak adingabeko biktimen edo babesgabezia-egoeran dauden adingabeen kasuan esku hartzeko jarraibideak.....	28
6. HEZKUNTZA-ARLOAN ESKUMENA DUEN SAILAREN ETA FISKALTZAREN ARTEKO KOORDINAZIOA.....	29
6.1. Prozedura eta koordinazio-jarraibideak.....	29
7. HEZKUNTZA-ARLOAN ESKUMENA DUEN SAILAREN ETA EPAITEGIAREN ARTEKO KOORDINAZIOA.....	30
7.1. Prozedura eta koordinazio-jarraibideak.....	30
8. KOORDINAZIO-PROTOKOLOAREN SEGIMENDUA.....	31
ERANSKINAK.....	32
I. ERANSKINA: ESKOLAKO TRATU TXARREN, SEXU-JAZARPENAREN ETA/EDO SEXU-ABUSUAREN AURKAKO SALAKETAK DAUDENERAKO JARDUKETEN ESKEMA OROKORRA.....	32
II. ERANSKINA: DOKUMENTUEN EREDUAK.....	36
III. ERANSKINA GIZARTE-ZERBITZUEN HELBIDEAK ETA TELEFONOAK.....	46
IV. ERANSKINA: ZUZENBIDE-ESPARRUA.....	57

AURKEZPENA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak, Eusko Jaurlaritzako beste Sail batzuekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde eta zerbitzu espezializatu eta profesionalekin elkarlanean, komenigarritzat jo du oinarritzko protokolo bat egitea, babesgabetasun egoera, tratu txarrak, sexu-jazarpena edo sexu-abusuak (fisikoak nahiz psikologikoak) jasaten ari diren, jasan dituzten edo jasan ditzaketen adingabeei dagokienez, hezkuntza-arloko prebentzio eta jarduketarako eta adingabe horiekin esku hartzen duten agenteen arteko lankidetzarako. Protokoloaren helburua da zenbait jarraibide ematea profesionalki adingabeekin esku hartzen duten agenteei, era horretako egoerak antzeman ditzaten eta adingabeen integritate eta duintasun osoa babestu eta defendatzeko lana azkar eta modu eraginkorrean egin dezaten. Halaber, adingabeen eta haien eskubideak babesteko esku hartzen duten erakunde guztien giza baliabideen eta materialen arteko koordinazioa erraztuko da.

Adingabeen eskubideak babesteko, batetik, erasoa gertatu ondoren gazteari eragindako kaltea arintzen duten jarduketak koordinatu behar dira, eta, bestetik, erasoa gertatu baino lehen, beharrezkoa da arriskuei aurrea hartzea eta arriskuak antzematea behar adinako denborarekin, eta, horren ondoren, haur eta nerabeen jarraipen egokia egitea.

Egokitzat jotzen da protokoloaren jarraipen-batzorde bat eratzea, tartean sartutako erakunde guztiak barne hartzen dituena; batzorde horrek protokoloaren eraginkortasuna aztertuko du, eta epe luzean protokoloaren funtzionamendu ona bermatzeko behar diren neurriak proposatuko ditu.

CRISTINA URIARTE TOLEDO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua

2016ko azaroaren 15a

1. SARRERA ETA KONTZEPTU OROKORRAK


1.1. Jardun- eta prebentzio-protokolo honen helburua eta elementuak

Protokoloaren funtsezko helburua adingabeak babestea da, adingabeek babesgabetasun egoera, tratu txarrak, jazarpena edo sexu-abusuak jasan dituztela uste bada.

Hona hemen protokolo honen xedea:

1. Zenbait jarraibide ematea, eskolan behar adinako aurrerapenarekin antzemateko adingabe edo nerabe bat babesgabetasun-egoeran dagoela edo tratu txarrak, sexu-jazarpena edo sexu-abusuak jasatea eragin dezaketen egoerak.
2. Jarraibideak eskaintzea, adingabe edo nerabeek babesgabetasun-egoeran daudenean eta tratu txarrak, jazarpena edo sexu-abusuak jasaten dituztenean nola jardun jakiteko.
3. Koordinazio-prozedurak ezartzea hauen artean: hezkuntza-zerbitzuak, gizarte-zerbitzuak, Ertzaintza, Fiskaltza, osasun-zerbitzuak... (noiz eta nola jakinarazi susmo bat, eta zer zeregin dituen horietako bakoitzak kasu hauetan).
4. Erakunde guztien jarduketan koherentzia sustatzea, eraginkorragoak izan daitezen; prozesu, laguntza- eta babes-bermeei laguntzea; adingabearekin egiten diren jarduketak egitean berrmatzea behar-beharrezko jarduketak baino ez direla egiten, eginbideak, deklarazioak eta azterketak errepika ez daitezen, horrek adingabearen egoera emozional ahula eta biktimizazioa areagotu besterik ez luke egingo eta.

Protokolo honetan definizioak, adierazleak, behatu beharreko jokabideak, jarduteko printzipioak eta jarraibideak, eta jarraipen eta ebaluaziorako orientazioak jasotzen dira. Horiek guztiek arlo horretan aritzen diren erakundeen lana erraztu dezakete, haur eta nerabeen babesgabetasun-egoera, tratu txarrak, sexu-jazarpena eta/edo sexu-abusuak prebenitzeko, antzemateko eta egoera horiei ekiteko.



Protokoloaren edukia:

- Haur eta nerabeen babesgabetasun-egoeren eta tratu txarren, sexu-jazarpen eta/edo sexu-abusuaren egoeren definizioa eta ezaugarriak.
- Jarduteko printzipio orokorrak
- Ikastetxearen jarduketak babesgabetasun-egoeretan (familiak ez du zaintzen)
- Jarduketak eskolan gertatzen diren tratu txarren, sexu- jazarpen eta/edo sexu-abusuen aurrean
- Hezkuntza-arloaren eta adingabeen babesaren arloan esku hartzen duten agenteen/zerbitzuen arteko koordinazioa eta elkarlana.
- Koordinazio protokoloaren jarraipena

1.2. Haurren babesgabetasunaren eta adingabeen aurkako tratu txarren, sexu-jazarpenaren eta sexu-abusuen artean dauden desberdintasunak

Haurren babesgabetasun-egoerak (familiak ez du babesten)

Gizarteak, oro har, haur eta nerabeei tratu egokia eman eta haien eskubideak babestu beharra dauka; hala ere, babesgabetasunaren kontzeptuak esan nahi du, zehazki, adingabeen zaintza duten pertsonak —gurasoek edo tutoreek, harrera-familiak edo zaintzaileek— zaintzarako ezarrita dauden babes-betebeharrak ez dituztela betetzen edo txarto betetzen dituztela, eta, nolana ere, hori kaltegarria da haur eta nerabeen garapenerako.

Beraz, babesgabetasuna dago baldin eta gurasoek edo tutoretza edo zaintza duten pertsonak adingabea babesteko duten betebeharra ez betetzeagatik edo gaizki betetzeagatik sortu bazaio kaltea adingabeari. Eta horretarako bi arrazoi egon daitezke: pertsona horiek adingabea beste batzuen erasoetatik babesteko gai ez izatea, edo erasoak pertsona horiek sustatzea. **Kasu horretan, gizarte zerbitzuek daukate eskumen oso-osoa.**

Hirugarrenek eragindako tratu txarrak, jazarpena eta/edo abusua (familiak babesten duenean)


Haur edo nerabe baten oinarrizko eskubideak adingabeen zaintza edo tutoretza duten pertsonak ez diren beste batzuek urratzen dituztenean (eraso fisikoak, sexu-erasoak, ahokoak...) eta, gainera, zaintza edo tutoretza duten pertsona horiek kaltea izan duen adingabea behar bezala babesten badute, eskubideen urraketa hori ez da babesgabetasun-egoera, eta beraz, **adingabeak behar duen laguntza edozein delarik ere, kasu horretan jarraitu beharreko prozedura ez da aurreko kasuko prozedura berdina (Ertzaintza, Fiskaltza, epaitegia).**

1.3. Eskola-esparruan antzemandako haur eta nerabeen babesgabetasun-egoeren eta tratu txarren, sexu-jazarpenaren eta/edo sexu-abusuaren definizioa eta ezaugarriak

a) Haurren babesgabetasun-egoeratzat jo daitekeen

Hezkuntza esparruko profesional batek **zantzu hauen arabera** antzeman dezake noiz gertatzen ari den haurren babesgabetasun-egoera bat:

- Adierazle esanguratsuak haur edo nerabearengan (fisikoak, jokabideari dagozkionak edo bestelakoak).
- Tratu txarren, sexu-abusuaren edo sexu-jazarpenaren biktima den adingabeak berak edo ikaskide batek emandako informazioa, baldin eta fidagarria eta sinesgarria badirudi.
- Guraso edo arduradunengan ikusitako adierazle esanguratsuak (alkohol-usaina, indarkeria-jokabideak, haurren edo nerabearen beharrei kasurik ez egitea...).
- Aita/amaren jarrera edo haurren ardura duten pertsonen jarrera adingabearekin jarraitzen den hezkuntza arloko esku-hartzearekiko (adibidez, seme-alabak eskolaratzen ez laguntzea, eskola-arloan antzemandako beharrianen aurrean hezkuntza-orientazioak ez betetzea...).
- Hirugarrenek emandako eta fidagarritzat jotzen diren informazioak (adingabearen etxeak ez diren senideak, auzokideak, ezagunak...)



b) Eskolan gertatzen diren tratu txarrak, sexu-jazarpena eta/edo sexu-abusua haurren babesgabetasun-egoeratzat jo ezin daitekeenean

Batzuetan, adingabearen aurkako tratu txarrak, sexu-jazarpena eta/edo sexu-abusua eskola-esparruan gertatu edo antzematen direnean, ziurtasun oso-osea dago tratu txarren egileak ez direla ez gurasoak ez familia-inguruneak. Egoera horietan jarraitzen den prozedura ez da babesgabetasun-egoeretako prozedura berdina (azken kasu horietan gizarte zerbitzuei dagokie eskumena).

Aipatutako egoera horietan beharrezkoa da adingabea babestea, familiari gertatutakoaren berri ematea eta beste erakunde batzuek (Ertzaintza, Fiskaltza...) esku hartzea, eta, beraz, tratamendu espezifikoak dute.

Hezkuntza esparruko profesional batek **zantzu hauen arabera** antzeman dezake noiz gertatzen ari diren haurren aurkako **tratu txarrak, sexu-jazarpena eta/edo sexu-abusua**:

- **Adierazle esanguratsuak haur edo nerabearengan** (fisikoak, jokabideari dagozkionak edo bestelakoak).
- **Hirugarrenek emandako eta fidagarritzat jotzen diren informazioak** (adingabearen senideak, auzokideak, ezagunak...).

1.4. Egoera motak

Kasu guztietan garrantzitsua da **egoera mota bi** bereiztea, horren arabera profesional-erakunde bati edo beste bati jakinaraziko baitzaio susmoa:

Egoera larriak

Egoera horietan haurren edo nerabearen integritatea arrisku handian dagoela jotzen du ikastetxeak, eta familia barruko tratu txarrak/abandonua gertatzen direlako susmoa izateko elementu nahikoak daudela.

Egoera horien adibideak dira hauek¹:

- Sexu-abusu larriak familia barruan gertatu direla adierazten duten adierazle fisikoak, edo familiatik kanpoko pertsona batek egin dituela eta aitak, amak edo legezko erantzuleak ez duela ezer egiten adingabea babesteko, edo egoeraren berri ematen duen haur edo nerabearen lekukotza.
- Dauden datuek pentsaraz dezakete tratu txar fisiko larriek edo adingabea zabarkeriaz elikatzeak haurra hiltzeko arriskuan jar dezaketela, edo bestela, adingabearen garapenari kalte handia eragin diezaioketela.
- Dauden datuek pentsaraz dezakete tratu txar larriak izan direla eta behin baino gehiagotan gertatu direla.
- Haur edo nerabearen abandonua, pertsona heldu arduratsu batekin ez egoteagatik (etxean, ikastetxean, kalean edo beste edozein lekutan), eta gurasoak (edo haurren ardura dutenak) aurkitzeko modurik ez dagoelako edo pertsona horiek adingabea zaintzerik ez dutelako (ospitalean daude edo antzeko gorabeheraren bat).

Presazko egoeretan, protokoloan jasotakoaren arabera jokatu da.

¹ Zerrenda honetan egoera horiek argigarri moduan jasotzen dira, baina ez da zerrenda zehatz bat. Baliteke beste egoera larri edo funtsezko batzuk zerrenda honetan ez agertzea.

Larriak ez diren egoerak

Ustez gertatu diren tratu txarrek ez badute haurren edo nerabearen integritatea berehala arriskuan jartzen, egoera horiek ez dira larritzat jotzen.

1.5. Erreferentziako araudia

EAEn, araudi hauek nabarmendu behar dira:

- 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babestekoa (aurrerantzean, HNL).
- 201/2008 Dekretua, abenduaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzkoa (EHAA, 2008-12-16koa).

Antolamendu juridikoak hau ezartzen du:² *“Bai agintariek eta zerbitzu publikoek bai herritarrek, batez ere lanbidea edo betetzen duten eginkizuna tarteko haur edo nerabe bat arrisku edo babesgabezia-egoera batean egon daitekeela ikusten dutenek, haur edo nerabeari laguntza berehala eskaintzeko betebeharra dute, eta, beren eskumenean badago, jarduteko, edo bestela, eskumena duten agintariei edo haien agente gertukoenei jakinarazteko; orobat, adingabearen legezko ordezkariak jakinarazi behar dizkiete egitateak, edo, beharrezkoa bada, Fiskaltzari ere bai”.*

HNLren 25. artikulua bereziki esplizitua da **hezkuntza zerbitzuen titularren eta langileen jardunari** dagokionez. Honako hau dio artikulua horrek:

“Halaber, hezkuntza-zentroetako titularrek eta langileek adingabeen babesaren arloan eskumena duten herri-administrazioei edo, beharrezkoa bada, Fiskaltzari edo epaileari jakinarazi behar dizkiete hurrenganako tratu txarrak, haurren babesgabetasuna edo horien arrisku-egoera ekar dezaketen egitateak, eta halaber adierazi beharko dizkiete horrelakoetan behar diren esku-hartzeak eraginkorrak eta kalitatezkoak izango direla bermatzeko behar diren datu guztiak; orobat, elkarlanean aritu beharko dute horrelako egoerak eragozteko eta konpontzeko, baina betiere adingabeen lehentasunezko interesak edukiko dira kontuan”.

NHL legearen 5 i) artikulua ezartzen duenez, administrazio publikoek, *“haurrak eta nerabeak delituen biktima direnean, arreta berezia eskaini behar diete, eta laguntzeko eta babesteko neurri egokienak hartu behar dituzte”.*

Ildo horretatik, urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak (Adingabekoen Babes Juridikoari buruzkoa, Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea zati batean aldarazi dituen) 13. artikulua 1. eta 4. zenbakietan, Haurrak eta nerabeak zaintzeko sistema aldatzen duen Legeak (uztailaren 28ko 26/2015) emandako idazketan, hau ezartzen du:

“Pertsona edo agintariek eta, bereziki, beren lanbideagatik edo funtzioagatik adingabe baten aurkako tratu txarrak eta arrisku- edo babesgabezia-egoera antzematen dutenek agintaritzari edo hurbilen dauden agenteei jakinarazi beharko diete, eta, horrez gainera, berehala eman beharko diete adingabeari behar duen laguntza”.

² Adingabekoen Babes Juridikoari buruzko Lege Organikoaren (urtarrilaren 15eko 1/1996) 13. eta 14. artikulua, eta Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko Eusko Legebiltzarraren Legearen (otsailaren 18ko 3/2005) 50.1 artikulua (esparru juridikoaren **5. eranskinak** protokolo honetan aipatzen diren xedapenen eta lantzen diren gaiekin lotutako beste xedapen batzuen testu osoa jasotzen du).

“Edozein informazio-iturriren bitartez, sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delitutzat eta gizakien salerosketa edo adingabeen esplotaziotzat jo daitekeen egitate baten berri izan duten pertsona guztiek Fiskaltzari jakinarazteko betebeharra dute, eta gainera, lege prozesaletan xedatutakoa bete beharko da”.

Artikulu horretako 5. zenbakian hau esaten da:

“Nahitaezko eskakizuna izango da, adingabeekin ohiko harremanak izatea eskatzen duten lanbide eta jardueretara jo ahal izateko eta horietan jarduteko, epai irmo baten bidez espetxe-zigorrekin kondenatua izan ez izana sexu-askatasun eta -ukigabetasunaren aurkako delituengatik –mota horretako delituen artean daude sexu-eraso eta -abusua, sexu-jazarpena, exhibizionismoa eta sexu-probokazioa, prostituzioa eta sexu-esplotazioa, eta adingabeak galbideratzea–, ez eta pertsonen salerosketa delituengatik ere. Horretarako, aipatutako lanbidea edo jarduna bete nahi duten pertsonak Sexu-delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri bat aurkeztu beharko dute, delitu horiengatik zigorrak jaso ez dutela egiaztatzen duena”.

Hori dela eta, haur edo nerabeekin ohiko harremana eskatzen duten lanbide eta jardueretan aritu nahi duten edo aritzen diren pertsonak egiaztatu beharko dute Lege Organikoaren 5. zenbakiko betekizuna betetzen dutela.

Botere publikoek adingabeekin jardutean bete beharreko printzipioei dagokienez, 26/2015 Legeak printzipio hauek sartzen ditu urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren (Adingabekoen Babes Juridikoari buruzkoa, Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea zati batean aldarazi dituen) 11. artikulua 2. zenbakian:

- Adingabearen interes gorena lehenestea.
- Adingabeen garapen pertsonalari kalte egin diezaioketen egoerak prebenitzea ea azkar antzematea.
- Hartutako neurrien izaera hezitzaileari eustea.
- Indarkeria mota guztietatik babestea, honako hauek barne: tratatu txar fisikoak eta psikologikoak; zigor fisiko iraingarriak; arduragabekeriaz edo zabarkeriaz tratatzea; teknologia berrien bitartez egindako esplotazioa; sexu-abusuak; ustelkeria; genero-indarkeria edo familia barrukoa, osasun-, gizarte- eta hezkuntza-arlokoa; eskola-jazarpena; pertsonen salerosketa; emakumeen mutilazio genitala; eta beste edozein abusu.

1.6. Jarduteko printzipio orokorrak

Erakundeen eta profesionalen jarduketek printzipio hauek bete behar dituzte:

- a) **Hauraren edo nerabearen interes gorena:** zalantza edo interes-gatazka dagoenean, haien eskubideak beste edozein pertsonaren eskubideen gainetik daude.
- b) **Koordinazioa: parte hartzen duten** erakundeen lan koordinatua, eta lankidetzat eta elkarlana egon dadila zaintzea, babesgabetasuna, tratatu txarrak eta/edo sexu-abusuak eta sexu-jazarpena antzemateko eta egoera horiei aurre egiteko.
- c) **Bizkortasuna:** abusu-egoera antzeman bezain laster esku hartzea eta prozedurak luzatzen ez dituzten jarduketak.

- d) **Ahalik eta gutxien** esku hartzea: adingabea behin eta berriz errepikatzen diren jarduketan pean ez jartzea, prozedura judizialaren nagusitasuna errespetatzea, eta frogen kontraesan- eta gertutasun-printzipioak bermatzea.
- e) **Konfidentzialtasuna**: erakundeek eta langileek jaso duten informazioa (familia-inguruabarrak eta pertsonalak, eta ustez gertatu nahiz egiaztatu diren sexu-abusuen edo tratatu txarren ondorioz eskuratutako informazioa) ezkutatzeko duten betebeharra.
- f) **Hezkuntza-tratamendua** eta kalteak konpontzeko lanak: hezkuntza-arloan neurriak eta bitartekoak jarri behar dira indarkeria-ekintzak ekiditeko eta prebentzio-faktoreak eta positiboak sustatzeko; halaber, hezkuntza-neurriak proposatu eta landu behar dira hondatutako harremanak birsortzeko eta biktimei laguntza osoa eman eta haiei eragindako kalteak konpontzeko.
- g) **Babesa eta prozesu-bermeak**: : adingabearekin egiten diren jarduketan prozesu-bermeak ziurtatzea, hura babesteko eta haren eskubideak zaintzeko..
- h) **Prebentzioa**

Beraz, jarduketa guztiak printzipio hauen arabera egin beharko dira: konfidentzialtasuna, azkartasuna, zuhurtasuna eta ahalik eta sentsibilitate eta begirune handiena inplikaturako pertsonekin. Adingabeak tartean dauden kasu guztietan, haien babesari emango zaio lehentasuna eta prozedura osoan adingabeen interes gorena bermatuko da.

2. PREBENTZIO-JARDUKETAK ESKOLA ESPARRUAN

Prebentzio-neurriak prestakuntza eta hezkuntzakoak, batez ere, izango dira, eta hurrekin esku hartzen duten profesionaleri eta adingabeei beraiei zuzenduak:

2.1. Irakasleentzako prestakuntza: arrisku-adierazleak, jarduteko prozedura...

Urteko saioak, non arrisku-adierazleak ezagutarazten diren, bai eta babesgabetasunaren eta tratu txarren, sexu-jazarpen eta sexu-abusuen egoerak identifikatzean erabiliko diren prozedurak ere.

2.2. Familientzako informazioa eta prestakuntza


Ikastetxeek, ikasturte hasieran informazioa bidaltzean, testu hau bidali behar diete gurasoei:

Babesgabetasun-aztarnak dauden egoerak jakinarazteko betebeharra

“Ikastetxe honek gurasoei honako hau jakinarazten die: Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko Eusko Jaurlaritzaren Legearen arabera (otsailaren 18ko 3/2005), ikastetxean uste bada ikasleen babesgabetasun-egoeraren aztarnak daudela, hau da, zaintzaileek beren funtzioak betetzen ez dituztela, zentroak horren berri eman beharko die derrigorrean gizarte-zerbitzuei. Hala egiten denean, eragindako ikaslearen familiari jakinaraziko zaio”.

2.3. Ikasleentzako prestakuntza: hezkuntza afektibo-sexuala, programa espezifikoak...

Hezkidetzarako eta euskal hezkuntza-sisteman genero-indarkeriaren prebentziorako plan zuzentzailearekin bat etorruta, zentroetako bizikidetzak behatokiak beren lanaren barruan sartu behar dituzte sorburuan sexismoa duten genero-indarkeriaren eta mota guztietako indarkeriaren prebentzioari eta indarkeriari erantzuteari buruzko alderdiak, genero-indarkeriak hainbat adierazpide baititu, gure gizartean asko eta asko oso agerian ez badaude ere.



3. HEZKUNTZA EREMIAN JARDUTEKO PROZEDURA

Oro har, azalduko diren jarduketa-faseetan, eskolak honako hauek hartuko ditu aintzat:

Eskolak egin behar duena:

- Susmoaren zantzuei adi egon.
- Tratu txarrak, sexu-jazarpena edo sexu-abusuak jasan dituela kontatzen duen ikasleari begirunez entzun.
- Haur edo nerabearen bat-bateko azalpena erregistratu: esaten duena hitzez hitz jaso eta kontaketa egiteko inguruabarrak zehaztu.
- Adingabearen intimitatea errespetatu.
- Hezkuntza-esparruko laguntza-talde eta talde teknikoei berehala jakinarazi.
- Kasuaren ezaugarriak zehazteko erabakigarriak izan daitezkeen datuak eta informazioak erregistratu, ahalik eta modurik objektiboenean eta balio-judiziorik eman gabe.
- Informazioa ahalik eta zuhurtasun eta konfidentzialtasun handienarekin tratatu.
- Familiari jakinarazi: horrek adingabearen integritatea arriskuan jartzen duenean izan ezik (familia barruko sexu-abusua, tratu txar fisiko larriak...). Kasu horietan, gizarte zerbitzuei eman beharko zaio egoeraren berri.

Eskolak egin behar EZ duena:

- Ez du entzungor egin eta balio-judiziorik eman behar; ez dio haur edo nerabeari zalantzarik planteatu behar tratu txarren, sexu-jazarpenaren edo sexu-abusuen egiazkotasunari buruz edo gertatu direlako susmoari buruz.
- Ez du inola ere hauraren edo nerabearen gorputza arakatu behar.
- Ez du galdeketa egin behar, langile eskudunek egiten baitute hori, berriz ere biktimizazioan erortzea errazten ez duten babes-baldintza egokietan. Eskolak ez du tratu txarren eta sexu-jazarpen eta/edo sexu-abusuen diagnostikorik egiten, ezta baieztatu ere; aitzitik, eskolak susmoa jakinarazten du.

3.1. Eskolaren jarduketak gerta daitezkeen babesgabetasun-egoeretan (fami­liak ez du zaintzen)

3.1.1. Babesgabetasun-egoerak antzematea

Gogorarazi nahi dugu babesgabetasun-egoera hauraren edo nerabearen eskubideen urraketa bat dela, familiarik datorrena, edo, familia kanpotik badator, adingabeen zaintza duten pertsonak — gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek— zaintzarako ezarrita dituzten babes-betebeharrak ez dituztela betetzen edo txarto betetzen dituztela esan nahi duena.

Hezkuntza-esparruan era horretako egoerak antzemateko jarraibideak hauek dira:

Adierazle fisikoak

Lesioak: beharbada tratamendu medikoa behar dute tratatu txarren ondorioz (mediku-txostenean jasotzen denaren arabera)

- Behin baino gehiagotan gertatzen diren beltzuneak, zauriak, erredurak...
- Lesioari buruzko azalpen arraroak eta ez oso sinesgarriak
- Sarritan ebakiak
- Hezurren hausturak etengabe

Oinarrizko beharrianak: osasuna, higiena eta elikadura

- Haurrak edo nerabeak zikin daude, usain txarra dute, arropa ez da eguraldirako egokia...
- Nekatuta edo apatiko daude beti (lo geratzen dira ikasgelan)
- Gosaldu gabe joaten dira ikastetxera
- Aurreko egunean otorduren bat ez dutela egin esaten dute
- Gehiegizko jangura jaten dutenean
- Zorriak edo parasitoak dituzte
- Ez dute oinarrizko zainketa medikurik jasotzen
- Esfinterren kontrola galtzen dute

Jokabideari dagozkion adierazleak

Gizarte- eta familia-harremanetan:

- Haur edo nerabea etxera ez joaten saiatzen da (ikastetxean, jolastokian edo inguruetan ohi baino denbora gehiago egoten da)
- Badirudi gurasoen edo zaintzaileen beldur dela
- Bakarrik itzultzen da bere etxera
- Bere familiari buruz hitz egitea saihesten du
- Inork ez duela zaintzen esaten du
- Asteburuaren ondoren, ikastetxera itzultzean okerrago dago (triste, zikin...)
- Gurasoen ardurak betetzen ditu anai-arreba txikiekin
- Aldi baterako desagertzen da familiari lanean laguntzeko
- Etxean sartzen ez diotela uzten esaten du
- Kaletik noraezean ibiltzen da beti

Jarreran eta nortasunean:

- Eskolan duen jokabidea ageriko arrazoirik gabe aldatzea
- Indarkeria-jokabideak eta/edo haserrealdi handiak eta luzeak
- Gizartearen aurkako jokabideak: ihesak, bandalismoa, lapurreta txikiak...
- Etsaitasunezko harremanak eta hotzak
- Erne-erne egoten da (zelatan, mesfidati...)
- Bere buruaz beste egiteko saiakera eta depresioaren sintomatologia
- Atzerakadak jokabideetan (haurren jokabideak daukan adinerako)
- Asko kezkatzen da beste haur batzuk negarrez daudenean
- Bere burua lesionatzen du

- Materiala txarto tratatu eta apurtzen du
- Arrazoirik gabe egiten du negar
- Arduratsuegia da
- Bakarrik, triste eta isil-isilik egoteko joera
- Etengabe bestean arreta erakarri nahi du
- Bere buruari eta/edo familiari buruz hitz egitea saihesten du
- Ematen du adeitsuegia eta pasiboegia dela, eta batere zorrotza
- Helduarekiko mesfidantza, haren promesetan edo jarrera positiboetan
- Lagun gutxi dauzka eskolan edo zentroan
- Askotan mina izaten du, ageriko arrazoirik gabe
- Elikadura-arazoak (oso jatuna edo goserik ez)

Etekin akademikoetan:

- Interes eta motibazio gutxi erakusten du eskolako lanetan
- Uko egiten dio talde-jardueretan parte hartzeari
- Askotan eta arrazoirik gabe ez da eskolara joaten
- Atzerapenak garapen fisikoan, emozionalean eta intelektualean
- Kontzentrazio-ahalmenaren galera
- Aldaketa handiak eskolaren emaitzetan
- Nekatu egiten da eskolako lanak egiten
- Arazoak ahozko hizkuntzan
- Etxerako lanak txarto egiten ditu
- Ez dauka eskola-materialik

Sexualitatean:

- Sexu-jokabide esplicitua, jolas eta ezagutza desegokiak daukan adinerako
- Estualdia adierazten du beste pertsonen aurrean arropaz aldatu behar duenean
- Sexu-adierazpen desegokiak erabiltzen ditu daukan adinerako
- Sexu-jokabide desegokiak beste hurrekin, jostailuekin, bere buruarekin
- Sedukzio-jokabideak helduekin
- Zailtasunak ditu ibiltzeko edo esertzeko
- Beldur-jokabideak helduekin
- Haurraren eta heldu baten arteko isilpeko harremana, erreserbatua eta baztertzaila
- Haurraren gurasoak babesleegiak dira, haurrak beste neska-mutil batzuekin erlazionatzea mugatzen dute, batez ere beste sexukoak badira


Adierazleak gurasoengan

- Badirudi ez direla haurraz edo nerabeaz arduratzen
- Inoiz ere ez dira joaten zentroko hitzordu eta bileretara
- Haurra edo nerabea gutxietsi eta mespretxatzen dute bestean aurrean
- Seme-alaba haien "jabetza" dela sentitzen dute (nire seme-alabarekin nahi dudana egin dezaket nirea delako)
- Bikote-harremanean zailtasunak dituztela adierazten dute
- Haurra ikastetxetik jaso eta ikastetxera eramaten dute inolako kontaktu sozialik gabe
- Gurasoak etxetik kanpo daude beti (inoiz ez dute denborarik ezertarako...)
- Opariekin konpentsatu nahi dute seme-alabekin duten harreman pertsonal eskasa
- Substantzia toxiko gehiegi hartzen dute (alkohola eta/edo drogak)
- Tratu desberdina neba-arreben artean

- Seme-alabak eskolara joaten ez badira, gurasoek ez dituzte huts-egiteak justifikatzen
- Diziplina zorrotza eta autoritarioa justifikatzen dute
- Haurren edo nerabeen jokabideak baimentzen dituzte, mugarik ipini gabe
- Haurra edo nerabea gaiztoa bezala ikusten dute
- Gehiegizko itxaropenak sortu edo adierazten dituzte haurraren edo nerabearen
- Azalpen ilogikoak, kontraesankorrak edo sinesgaitzak eskaintzen dituzte, edo, bestela, ez dute azalpenik ematen
- Haur edo nerabearentzako diziplina desegokia erabili ohi dute
- Jeloskorrak dira eta haur edo nerabea gehiegi babesten dute

Gogoan hartu zer egin behar duen eta zer ez duen egin behar eskolak aurreko paragrafoan azaldu diren kasuetako baten frogak badaude.

Gogoan hartu 1.3 atalean aipatutako egoera larrietarako eta larriak ez diren egoerentarako esandakoa, eta osasun-zerbitzuetara eramateari buruz esandakoa.



Adingabea osasun-zentro batera eraman behar den ala ez erabakitzea:

Eskolako langileek **larrialdietan** (berehalako mediku-arreta behar duten lesio fisikoak) **bakarrik** eramango dute adingabea osasun-zentro batera.

Kasu horietan, adingabeaz arduratzen den profesionalak (betiere, zuzendaritza ados badago) erreferentziako **larrialdietako osasun-zerbitzuetara (ospitalea edo anbulatorioa)** eramango du adingabea, eta bertan, tratu txarren kasuetarako dagokion protokoloa abiaraziko da, beharrezkoa denean.

Ikastetxeak familiari jakinaraziko dio adingabea osasun-zerbitzuetara eraman dutela. Jakinarazpen hori egin daiteke adingabea osasun-zerbitzura daramatenean, edo, bestela, osasun-zentrorra heldu ondoren, legezko tutoreek egin dezaketena kontuan hartuta (ihes egiteko arriskua, mediku-arretarik ez jasotzeko arriskua...).

3.1.2. Gizarte-zerbitzuei jakinaraztea

II.1 eranskin gisa sartu den inprimakiaren arabera egingo da (hautzaroan eta nerabezaroan arrisku-egoeren jakinarazpena).

Ikastetxeko Zuzendaritzak, ikasle baten babesgabetasun- eta/edo babesgabezia-egoeraren susmoa edo ziurtasuna daukanean, horren berri emango die gizarte-zerbitzuei. Gizarte-zerbitzuei jakinaraztea eskolaren legezko betebeharra da, eta gurasoen baimena ez da beharrezkoa.

Jakinarazteko betebeharra: eskolak jakinarazteko legezko betebeharra dauka, eta gainera, erantzukizun soziala eta etikoa da. Babesgabetasun-egoera bat aurrez ikustea eta horren ondoren jardutea hezkuntza-komunitatearen lana da; izan ere, funtsezko testuingurua da haur eta nerabeen garapen afektibo eta soziala egokia eta osasungarria izan dadin. .

Hala eta guztiz ere, konplexua da haur eta nerabe biktimen egoerak behar bezala ulertzea eta haiei erantzuna ematea. Hori dela eta, eskolak erakunde eskudunekin eta langile espezializatuekin koordinatuta esku hartu behar du, sarean lan eginez.

Gizarte-zerbitzuei nola jakinarazi:

NOIZ JAKINARAZTEN DA?

Beharizan fisikoak (adibidez, elikadura desegokia, higienerik eza...), emoziozko beharizanak eta hezkuntzakoak estaltzean zabarkeriaz jokatzegatik gerta litezkeen ondoez fisiko eta emozionalaren adierazleak direla-eta, **ikasle bat babesgabetasun-egoeran (larritasun-maila edozein delarik ere) egon daitekeelako susmoa badauka eskolak**, dagozkion udaleko gizarte-zerbitzuei jakinarazi beharko die.

Jakinarazpena egiteko unea:

Kasu larrietan, jakinarazpena egingo da ikaslea babesgabetasun-egoeran dagoela eta beraz, 3.1.1 atalean aipatutako arriskuak daudela susmatzeko adierazleak antzematen diren unean bertan.

Larriak ez diren kasuetan, ikastetxeko langileek ikaslea babesgabetasun-egoeran dagoelako susmoaren adierazleak antzeman dituzten hilabetean egin beharko da jakinarazpena.

Adingabea osasun-zentro batera eraman behar den ala ez erabakitzea:

Eskolako langileek **larrialdietan** (berehalako mediku-arreta behar duten lesio fisikoak) bakarrik eramango dute adingabea osasun-zentro batera.

Kasu horietan, adingabeaz arduratzen den profesionalak erreferentziako larrialdietako **osasun-zerbitzuetara (ospitalea edo anbulatorioa)** eramango du adingabea, betiere, Zuzendaritza ados badago, eta bertan, tratu txarren kasuetarako dagokion protokoloa abiaraziko da, beharrezkoa denean.

Ikastetxeak familiari jakinaraziko dio adingabea osasun-zerbitzuetara eraman dutela. Jakinarazpen hori egin daiteke adingabea osasun-zerbitzura daramatenean, edo bestela, osasun-zentrorra heldu ondoren, legezko tutoreek egin dezaketena kontuan hartuta (ihes egiteko arriskua, mediku-arretarik ez jasotzeko arriskua...).

NORK JAKINARAZTEN DU?

Babesgabetasun-egoera bakoitzerako, gizarte-zerbitzuekiko solaskidea pertsona bera izango da beti (tutorea, orientatzailea edo zentroak kasu bakoitzean egokitzen jotzen duen pertsona).

Aurretiatzko kontsulta:

Gizarte-zerbitzuekin solaskide gisa arituko den pertsonak telefonoz deituko du gizarte-zerbitzuetara, adingabearengan ikusi dituen adierazleak babesgabetasun-egoera bati dagozkion ala ez jakiteko. Informazio hori ikastetxeko zuzendaritzari eta erreferentziako ikuskatzaileari eman beharko die. Gainera, haur eta nerabeen arretarako Zeuk Esan zerbitzua (tel.: 116111; 9:00etatik 21:00etara) adingabeekin lan egiten dutenek ere erabil dezakete, baldin eta laguntza eta aholkua behar badute; Zeuk Esan zerbitzuak berak gizarte-zerbitzuei jakinarazteko ere erabil daiteke.

Jakinarazpen formala:

Aurretiatzko kontsulta horren ondoren, jakinaraztea egokitzen jotzen bada, ikastetxeko solaskideak idatziz bidaliko du antzemandako babesgabetasun-egoerari buruzko informazioa, protokoloan ezarritako moduan eta eredia erabilita. Profesionalentzat arrisku handia aurreikusten bada, profesionalaren sinadurarik gabe jakinarazi ahal izango da; ikastetxearen zigilua nahikoa izango da.

NORI JAKINARAZTEN ZAIO?

Ikaslea bizi den udalerriko udalaren gizarte-zerbitzuei. Kasu larria bada (ikus 1.3 ataleko definizioak), aldi berean jakinarazi beharko zaie haurren lurraldeko zerbitzu espezializatuari. Zuzendaritzak aztertuko du, lurraldeko ikuskaritza eta ordezkariarekin batera, salaketa epaitegian edo polizian jarri behar den.

Familia ez badago errolatuta, familia benetan bizi den udalerriko gizarte-zerbitzuei jakinarazi beharko zaie.

NOLA JAKINARAZTEN DA?

Aldez aurretik ahozko kontsulta egin eta gero, kasu horretan beharrezkoa bada, **idatziz jakinaraziko da, II.1 eranskineko** eredia erabiliz (haur eta nerabeen arrisku-egoeren jakinarazpena). Idatzizko jakinarazpena 48 orduko epearen barruan egin beharko da, kontsulta egin denetik aurrera zenbatuta.

Kontuan hartu behar da zenbait jarduketak ez dutela idatzizko jakinarazpena ordeztu, eta, beraz, ez dute babesgabetasun-protokoloa abiarazten. Horrela, bada, honako hauek ez dute baliorik jakinarazpen gisa:

- Telefono-deiak edo gizarte-zerbitzuekin egindako bileretan esandakoa.
- Familia gizarte-zerbitzuetara bideratzea.

Gizarte-zerbitzuek informazio ez formala edo behar ez den formatuan jasotzen badute, jakinarazpena zuzen egin dezan eskatuko diote hezkuntza-zerbitzuari.

Zalantzarik badago, udaleko gizarte-zerbitzuekin telefonoz hitz egitea gomendatzen da. Dei hori ez da jakinarazpena izango, baizik eta kontsulta. Gainera, haur eta nerabeen arretarako *Zeuk Esan* zerbitzua (tel.: 116111; 9:00etatik 21:00etara) adingabeekin lan egiten dutenek ere erabil dezakete, baldin eta laguntza eta aholkua behar badute; Zeuk Esan zerbitzuak berak gizarte-zerbitzuei jakinarazteko ere erabil daiteke.

Guraso edo legezko arduradunentzako informazioa:

Gizarte-zerbitzuei babesgabetasun-egoera egon litekeela jakinarazi ondoren, komeni da (ez da derrigorrezkoa) adingabearen legezko arduradunei gertatukoaren berri ematea. Jakinarazpena ahoz edo idatziz egingo da, inguruabarren arabera:

Ikastetxeak egokitzat jotzen badu idatziz jakinaraztea (aurrez aurre egin gabe), **II.2 eranskinaren** bidez egingo du (Gurasoentzako jakinarazpena). Jarduketa hori jakinarazpenarekin batera egin daiteke, edo, bestela, gehienez 7 eguneko epean, gizarte-zerbitzuei jakinarazi zaienetik.

Gizarte zerbitzuei egindako jakinarazpenari buruzko alderdi garrantzitsuak

- **Espedientea eskuratzea:** Usteko babesgabetasun-egoeraren jakinarazpen-dokumentua, ikastetxeak egina, ikaslea babesteko administrazio-espeditari gehituko zaio, ondore guztietarako. Aitak eta amak,³ eskatzen badute, espediente hori eskuratu eta kopia bat lortu ahal izango dute, indarrean den legediaren arabera⁴. (Horregatik, profesionalen osotasuna arriskuan dagoela aurrez ikusten bada, jakinarazpena profesionalaren sinadurarik gabe egin daiteke, zentroaren zigilua nahikoa izango baita kasu horietan).
- **Banantzea edo dibortzioa:** Gurasoak bananduta edo dibortziatuta badaude, jakinarazpenak biegi egingo zaizkie, ikaslearen legezko tutoretza eta zaintza bietako zeinek daukan kontuan hartu gabe. Legeak aitari eta amari ematen die emantzipatu gabeko seme-alaba adingabeen **guraso-ahala**, gurasoak elkarrekin bizi diren ala ez kontuan hartu gabe. Banantzea edo dibortzia ez da izan behar gurasoek informazioa jasotzea eta parte hartzea mugatzeko; izan ere, guraso-ahalaren titularrak izanik, gurasoek informazioa jaso eta parte hartzeko eskubidea dute, adingabearen garapen osoa zaintzeko betebeharra bete dezaten.

³ Atal honetan aitari edo amari buruz egiten diren aipamenak ikasleen tutore edo erantzuleei ere aplikatu ahal izango zaizkie.

⁴ Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko Lege Organikoa (abenduaren 13ko 15/1999) eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legea (urriaren 1eko 39/2015).

Informazioa mugatzea justifikatuta egongo da, bakar-bakarrik, epaitegi batek aitaren edo amaren guraso-ahala mugatzea edo kentzea berariaz erabakitzen badu, gurasoen eta seme-alaben arteko betebeharrak ez betetzeagatik. Ez banantzeak, ezta adingabearen zaintza gurasoetako bati emateak ere, ez du esan nahi du erabakia hartu denik. Hortaz, seme-alabatasun familia-liburuaren bitartez edo antzeko erregistro-agirien egiaztatuz gero, ez da guraso-ahalaren beste egiaztagiririk eskatu beharko. Guraso-ahala aldi baterako mugatzeko, alegazio-egileak frogatu beharko du.

- **Sinatzaileei lekuko gisa dei egitea.** Aitak edo amak adingabea babesteko hartu diren neurrien aurkako errekurtsioa aurkeztzen badu familia-epaitegian, haur eta nerabeen babeseko foru aldundietako zerbitzuek espediente osoaren kopia bat bidaliko diote epaitegiari, Prozedura Zibilaren Legearen 780. artikulua araberako. Espedientean eskolaren jakinarazpena dagoenez, sinatzaileei egoitza judizialera joateko deitu ahal izango zaie, lekuko gisa.

3.1.3. Informazio-trukea hezkuntza-zerbitzuen eta gizarte-zerbitzuen artean

Arrisku- eta babesgabezia-egoeretan esku hartu eta baloratzeko prozedura baten barruan, gizarte zerbitzuek informazioa eskatzen badiote eskolari ikasle baten egoerari eta haren egoera sozialari eta familiakoari buruz, aldeztu aurretik bilera edo koordinazio bat eskatu beharko dute, egoera sozialari eta familiakoari buruzko informazioa trukatzeko.

Geroago beharrezkotzat jotzen badute idatzizko informazioa eskatzea ikastetxeko Zuzendaritzari, **II.6 eranskinaren** bidez egingo dute (Udaleko Gizarte Zerbitzuen informazio eskaera). Egoera larrietan edo presazkoetan, idatzizko informazioa eskatu ahal izango da inolako bilerarik egin beharrik gabe.

Kasu horietan, ikastetxeko Zuzendaritzak sinatutako idatzizko txosten bat bidaliko die ikastetxeak gizarte-zerbitzuei, eskura dituen informazioak eta datuak emateko, eta haiekin lankidetzan jardungo esku-hartzearen kalitatea eta eraginkortasuna bermatzeko. Txosten hori 7 eguneko epearen barruan bidaliko du ikastetxeak, eskabidea jaso den egunetik zenbatuta.

Halaber, udaleko gizarte-zerbitzuek aldian-aldian jakinaraziko dute ikastetxeak familiarekiko dituen funtzioak betetzeko ezagutu behar duen informazio guztia. Horretarako, urtean bi aldiz jarriko dira harremanetan.

Txostenak aurkezteko faseari buruzko alderdi garrantzitsuak:

- **Informazioa aurkezteko ez da beharrezkoa izango gurasoen edo legezko tutoreen, harrera-familien edo zaintzaileen baimena:** Antolamendu juridikoaren arabera⁵, interesdunaren baimena ez da beharrezkoa izango (kasu honetan, adingabearen legezko ordezkariaren baimena) datu pertsonalak biltzeko edo lagatzeko, lege-mailako arau batek horrela ezartzen badu (1/1996 Lege Organikoaren 22. artikulua 1. eta 2. zenbakiak).

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak iritzi berdina agertu du 2010eko abuztuaren 9ko "gizarte-zerbitzuen arloan datuen babesari buruzko legediari egokitzeari buruzko irizpena" izenekoan. Irizpen horren arabera, HNLren 25. artikuluan lege-gaikuntza nahikoa dago gizarte-zerbitzuek hezkuntza-arloko datuak titularraren baimenik gabe lor ditzaten, eta datu horiek lagatzeko ez da beharrezkoa izango adingabeari eta bere gurasoei jakinaraztea.

⁵ Adingabearen Babes Juridikoari buruzko Lege Organikoa (urtarrilaren 15eko 1/1996) eta Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko Eusko Legebiltzarraren Legea (otsailaren 18ko 3/2005).

Bestalde, Haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatu zuen Legeak (uztailaren 28ko 26/2015) 22. quater artikuluan, 1. eta 2. zenbakietan, hau dio:

Lehenengoa. “Lege horren II. tituluko I. kapituluaren ezarritako helburuak betetzeko, administrazio publiko eskudunek, interesdunaren adostasunik gabe, adingabearen egoera ebaluatzeko beharrezko diren datuak bildu eta tratatu ahal izango dituzte, adingabeari berari buruzkoa datuak zein haren familia-inguruneari eta ingurune sozialari buruzkoak. Profesionalek, erakunde publikoek zein pribatuek eta, oro har, edozein pertsonak adingabe, guraso, tutore, zaintzaile edo harrera-egileei buruzko txostenak eta aurrekariak emango dizkiete administrazio publikoari helburu honetarako eskatzen zaizkienean, eta ez da beharrezkoa izango ukituaren adostasuna izatea”.

Bigarrena. “13. artikulua aitutzen dituen erakundeek interesdunaren baimenik gabe erabil dezakete informazioa, manu horretan ezarritako betebeharrak betetzeko ezinbestekoa dena, datu horiek administrazio publiko eskudunen edo Fiskaltzaren esku uzteko helburu bakarrekin”.

- Jakinarazpenaren inguruan esan den bezala, gurasoek eskuratu dezakete espedienteak, eta jakinarazpenaren sinatzaileei epaitegiaren aurrean lekuko gisa azaltzeko dei egin ahal zaie.

Eskola-esparruan adingabeei egindako elkarrizketen legitimitatea

Usteko babesgabetasun-egoera batean esku hartzeko eta baloratzeko prozesuan, gizarte-zerbitzuek haur eta nerabeekin hitz egingo dute, haien egoera pertsonalari buruzko datuak lortzeko; horren aurretik, gurasoei jakinaraziko diete adingabeak prozesu horren barruan daudela. Elkarrizketa hori gizarte-zerbitzuen bulegoetan egin daiteke, gurasoek hara eraman ondoren; bestela, ikastetxean bertan egin daiteke, gurasoek baimentzen badute.

Egoera bereziak: ustez gertatu diren babesgabetasun-egoeretan (moderatu edo larria), gurasoei alde aurretik jakinarazteak arriskua badakarkio adingabearen osotasun fisiko edo moralari, edo bere kontaketa baldintzatzen badu, gizarte-zerbitzuek ikastetxeari eska diezaizkete bertako azpiegitura erabiltzeko, gurasoek jakin eta baimendu gabe elkarrizketa egiteko adingabeei, kasu horietan hori baita modu bakarra adingabearen integritatea babesteko, haren egoera baloratzeko datuak lortzeko eta babes-neurri egokiak hartzeko.

Salbuespenezko jarduketa hori Adingabearen Babes Juridikoari buruzko Lege Organikoak (urtarrilaren 15eko 1/1996) babesten du, 22 quater artikuluan, honako hau dioenean:

“Lege honen II. tituluko I. kapituluaren aurreikusitako helburuak betetzeko, administrazio publiko eskudunek, interesdunaren baimenik gabe, adingabearen egoera balioesteko beharrezkoak diren datuak bildu eta tratatu ahal izango dituzte, adingabearen ingurukoak eta bere familia- edo gizarte-ingurunearekin lotutakoak barne”.

Kasu horretan ulertzen da “datuen bilketak” nahitaez jasotzen duela adingabearekiko elkarrizketak egitea, eta jarduketa horrek sekula ezin diola arrisku erantsirik ekarri berari, ez eta bere kontaktaren kutsadurarik edo manipulaziorik ere. Ikastetxeak gizarte-zerbitzuen lana erraztu besterik ez du egingo; horretarako, kasu horretako gertakarien inguruko behar bezalako isilpekotasuna gordeko du.

3.1.4. Ikastetxearen lankidetzan, adingabeak babesteko neurriak hartzeko

NOIZ

Adingabe baten babes-neurriak ikastetxetik hartuko dira, Haur eta Nerabeen Babeseko Zerbitzuak hala eskatzen duen **kasuetan**, honako motibo hauetako batengatik:

- Adingabeak ez duenean bere kabuz jo haurren zerbitzura edo familiarengana.
- Adingabearen osotasun fisikoa edo psikikoa arrisku larrian jartzen denean, berehala haurrak babesteko zentro batean sartzeko modukoa.
- Ihes egiteko arriskua dagoenean.

NOLA

Haur eta nerabeen babeseko foru aldundietako zerbitzuek idatzi bat bidaliko diote ikastetxeko zuzendaritzari, **II.5 eranskinari** jarraituz (Ikastetxeari zuzendutako eskaera, haurra bertatik ateratzeko), eta lankidetzan jarduteko eskatuko dio, bere zerbitzuek adingabea zentroan hartu ahal izateko.

Idatziarekin batera, adingabearen babesgabezia-egoera aitortzen duen foru arauaren⁶ kopia ere bidali beharko zaio, eta foru aldundiak bere gain hartuko du automatikoki adingabearen tutoretza; hala, denboraldi batez eten egingo da haren gurasoei dagokien guraso-ahala.

Haur eta nerabeen babeseko foru aldundietako zerbitzuek, ikastetxeko zuzendaritzari bidalitako idatzian, honako hau jasoko dute:

- Zer teknikarik duen baimena haurraren edo nerabearen lekualdatzea egiteko; lehentasuna izango dute adingabearekin konfiantza-harremana duten pertsonak.
- Lekualdatzea Ertzaintzako agenteek lagunduta egingo ote den, haurraren edo nerabearen eta esku hartzen duten teknikarien segurtasuna bermatzeko. Kasu horretan, agenteak ahal dela kaleko jantzita joango dira eta polizia-bereizgarririk ez duten ibilgailuetan.

Haurra ikastetxetik irteteko jarduketak, ahal dela, honela koordinatuko dira: adingabea ikastetxetik haurrak babesteko zentrorantz eramaten den bitartean, Foru Aldundiaren Haur eta Nerabeen Babeseko Zerbitzuak aitari eta amari aurrez aurre jakinaraziko die, bere bulegoetan, haien semea edo alaba zaintzarako egokitutako babes-zentrorantz eramaten dela.

Era berean, ikastetxeak egoera horren berri emango dio Hezkuntza Ikuskaritzari, hark Foru Aldundiak zentroan eginiko jarduketaren aurreko edo osteko segurtasun-neurri erantsiak antolatzeke egokitasuna balioesteko, profesional eta ikasleen segurtasuna bermatzeko.

⁶ Kode Zibilaren 172. artikulua eta HNLren 60. artikulua ezartzen duenaren arabera,

IKASTETXEAREN LANKIDETZA, ADINGABEAK BABESTEKO NEURRIAK HARTZEKO

NOIZ

Foru Aldundiko Haurren eta Nerabeen Babeseko Zerbitzuak hala eskatzen duenean, arrazoi hauetako batengatik:

- Adingabeak ez duenean bere kabuz jo haurren zerbitzura edo familiarengana.
- Haurren edo nerabearen osotasun fisikoa edo psikikoa arrisku larrian jartzen denean, berehala haurrak babesteko zentro batean sartzeko modukoa.
- Ihes egiteko arriskua dagoenean.

NOLA

Foru Aldundiko Haurren eta Nerabeen Babeseko Zerbitzuak idatzi bat bidaliko dio ikastetxeko Zuzendaritzari, **II.5 eranskinari** jarraituz (**Ikastetxeari zuzendutako eskaera, haurra bertatik ateratzeko**).

Horrekin batera, adingabearen babesgabezia-egoera aitortzen duen Foru Arauaren kopia ere bidali beharko zaio, eta Foru Aldundiak bere gain hartuko du automatikoki adingabearen tutoretza; hala, denboraldi batez eten egingo da haren gurasoei dagokien guraso-ahala.

Ikastetxeko Zuzendaritzara bidalitako idatzian jasota geratuko dira alderdi hauek:
Zer teknikarik duten baimena haurra edo nerabea lekualdatzeko.
Ertzaintzako agenteek lagundu dieten edo ez.

Foru Aldundiko Haurren eta Nerabeen Babeseko Zerbitzuak gertakariaren berri emango die gurasoei.

Ikastetxeak egoeraren berri emango dio Hezkuntzako Ikuskaritzari.

3.1.5. Eskola-absentismo egoeren aurrean jardutea

Egoera horietan, lurralde historiko bakoitzean dauden protokoloen arabera jardungo da.

3.2. Eskolako tratu txarrak, sexu-jazarpena eta/edo sexu-abusua geldiarazteko jarduketak

Gogoratu behar da adingabe baten aurkako tratu txar, sexu-jazarpen eta/edo sexu-abusuaren kasuak direla, eskola-eremuan sortu edo antzeman daitezkeenak, tratu txarren pertsona emaileak gurasoak ez direla behar bezala egiaztatu diren kasuak. Egoera horiek eta babesgabetasun-kasuek ez dute prozedura bera izango; izan ere, horietan –gainerako esku-hartzaileak gorabehera–, familia haurraren edo nerabearen babesaz arduratzen da.

Egoera horietan, adingabearen babesa behar da, familiari informazioa eman behar zaio eta beste erakunde batzuek jardutea ezinbestekoa da, besteak beste, Ertzaintzak, Fiskaltzak, osasun zentroek, eta abar; horiek beren prozedura bereziari jarraituko diote.

3.2.1. Eskolako adingabeen tratu txar, sexu-jazarpen eta/edo -abusu egoerak antzematea

Hezkuntza-eremuko profesional batek haurren tratu txarrak, sexu-jazarpena eta/edo sexu-abusua antzeman ditzake, zenbait zeinu-motaren bidez (adierazleak):

- **Haur edo nerabearengan ikus daitezkeen adierazle esanguratsuak** (fisikoak, jarrerazkoak edo bestelakoak).
- **Adingabeak emandako informazioa** (adingabeak eskolan egiten dituen aitormenak edo ikastetxeak jakiten dituenak)
- **Hirugarrenek emandako informazioak**, fidagarritzat jotzen direnak (adingabearen familia, auzokideak, hurbileko pertsonak...)

Gogoratu behar da “Ikastetxeak kasu hauetan egin behar duena eta egin behar ez duena” atala

Hemen ere komeni da premiazko egoeren eta ez-premiazkoen artean bereiztea:

Premiazko egoerak

Ikastetxeak haurraren edo nerabearen osotasuna berehala erabat arriskuan dagoela balioesten duenean.

Premiazkoak ez diren egoerak


Gainerako egoerak, ustezko tratu txar, sexu-jazarpen eta/edo -abusu egoerek haurraren edo nerabearen osotasuna berehala arriskuan jartzen ez dutenak. Horiek, beraz, izango dira egoera gehiena. Gurasoei jakinaraziko zaie.

Gogoratu behar da **osasun-zentroetara** ikastetxeak baino ezingo dituela eraman, baldin eta mediku batek berehala esku hartu behar duen lesiorik badago. Hala ez bada, gurasoei eman behar zaie adingabeengan antzemandako tratu txar, sexu-jazarpen eta/edo sexu-abusuen berri.

Ikastetxeko Zuzendaritzari eta Ikuskaritzari jakinaraztea

Ikastetxean ikasle baten ustezko tratu txarren, sexu-jazarpen eta/edo sexu-abusuen berri duen eta/edo hura antzematen duen pertsonak ikastetxeko zuzendaritza jarri beharko du jakitun, eta zuzendaritzak dagokion ikuskatzailea. Ikuskatzaileak, aldi berean, Lurraldeko Ikuskaritza buruari eta Ordezkaritza buruari emango dio egoera horren berri.

Ustezko biktima den ikaslearen babesa eta jarraipena ikastetxe barruan egingo da; horretarako, behar besteko isilpekotasuna eta arreta bermatuko da, eta, horrela, adingabearen babesa bermatzeko beharrezkoak diren pertsonak baino ez dute esku hartuko.




Pertsona susmagarria ikastetxeko langilea bada

Kolektibo horren barruan sartzen dira bai irakasleak eta ikastetxeko langileak, bai adingabeekin harremanetan egon ohi diren ikastetxeko langileak (monitorea, jangelako begiraleak edo zaintzaileak, entrenatzaileak etab.), dela eskola-ordutegiaren barruan, dela kanpoan, betiere beren eginkizunak betetzen dituzten bitartean edo beren lanbidea eskola-barrutian edo instalazioen barruan betetzen ari direnean.

Edonola ere, ikastetxeak neurriak hartuko ditu adingabea berehalakoan babesten dela bermatzeko. Langile susmagarria behatzeko beharrezkoak diren zaintza- eta antolamendu-neurriak ezarriko dira, hezkuntza-ikuskaritzako zerbitzuari jarraikiz.

Salaketaren eraginpean dagoen ikastetxeko langileak ustez biktima den ikaslearekin bakarrik ez egotea bermatzen duten antolamendu-neurriak ezarriko dira,

Susmoak oinarrituta egonez gero, lurralde-ordezkaritzak, kautelazko neurri gisa, susmagarria den pertsonaren eginkizunak aldi baterako etetea erabaki ahalko du, eta zerbitzu eskudunekin koordinatuta hartuko ditu adingabeari behar bezalako laguntza emateko beharrezkoak diren neurriak.



Era berean, Zuzendaritzak, Ikuskaritzarekin eta lurraldeko ordezkariarekin batera, eskuratutako datuen arabera, Ertzaintzan, Epaitegian edo Fiskaltzan salaketa jarri behar den ala ez aztertuko du.

- Prozedura judiziala irekitzen den kasuan, hezkuntza-arloan eskumena duen sailak salatutako, ikertutako edo susmagarria den pertsonaren eginkizunak behin-behinean etetea erabaki ahalko du; horrela, bada, diziplina-prozedura eten egingo da, harik eta prozesu judizial irekia amaitu arte. Prozesu judiziala amaitzean, amaierako ebazpena edozein dela ere, diziplina-espedientearekin jarraituko da.
- Eginbideak irekitzen ez badira edo kasua artxibatzen eta largesten bada, berdin-berdin hartuko dira ikastetxean segurtasun-neurriak, besteak beste: eraginpean dauden pertsonen egoeraren prebentziozko segimendua eta segimendu horren ondorioen aldizkako erregistroa, harik eta beharrezkotzat jotzen ez diren arte.
- Fiskaltzak lurralde-ordezkarria espedientearen egiten diren izapide edo aldaketa esanguratsuen jakitun izango du, ondorioz jardun ahal izateko.

Adingabearen familiari jakinaraztea

Ikastetxeko zuzendaritzak egiten dituen jarduketan berri emango dio adingabearen familia; kasu horren inguruan esanguratsua izan daitekeen informazioa batuko du, eta, betiere, prozesuan diskrezio osoz jardungo du.

3.2.2. Hirugarrenek (familia barne) tratu txarrak, jazarpena eta/edo sexu-abusuak gertatu direla jakinaraztea edo salaketa jartzea zentroko langile baten aurka.

- **Susmo baten jakinarazpenaren kasuan**
Aurreko atalari jarraikiz jardungo da
- **Agintari eskudunaren aurrean salaketa formalak jartzea bada helburua**
Salaketa jasotzen duen agintaritzak (Fiskaltza, Polizia, Epaitegia) lurralde-ordezkaritari emango dio horren berri, adingabearen babes-neurriak antolatu ahal izateko, bai eta beharrezkoak diren gainerako neurriak ere, salbu eta jakinarazpen hori ez egitea justifikatzen duten arrazoiak badaude; kasu horretan, Fiskaltzak eta Epaitegiak beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte, arriskuak saihesteko edo babesa emateko eraginpean egon daitezkeen adingabeei.

Eginbideak hasten diren edo ez kontuan hartuta, aurreko ataletan aipatutako moduan jardungo da.

Elkarrenganako jakinarazpena Fiskaltzarekin, Ertzaintzarekin eta Epaitegiarekin

Kasu guztietan, salaketa jasotzen duen erakundeak beharrezkoa den komunikazioa ezarriko du lurralde-ordezkariekin, hark bere enplegatuari dagozkion jarduketan garapenaren berri izan dezan. (izapidetzeko ondartzea edo ez onartzea, largestea eta abar), erabaki egokiak hartu ahal izateko.

3.2.3. Ikastetxeak gurasoetako batek eragindako (besteak jakin gabe) tratu txar, sexu-jazarpen eta/edo sexu-abusuen ustezko kasu baten berri izatea

Ikastetxeak kasu horietakoren baten berri badu, dela hirugarren baten eskutik, dela biktimaren beraren eskutik, hura zentroko Zuzendaritzari, Ikuskaritzari eta lurralde-ordezkaritari jakinarazi ondoren, informazioa benetakotzat jotzen bada, horren berri ez duen gurasoa jarriko da horren jakitun, eta salaketa egokia jarriko da Fiskaltzan, Polizian edo Epaitegian. Halaber, oinarritzko gizarte-zerbitzuei aurretiko kontsulta egingo zaie, babesgabetasuna egon badaiteke ere.

3.2.4. Ikastetxeak jakitea ikastetxetik kanpoko langile baten kontra tratatu txar, sexu-jazarpen eta/edo sexu-abusuengatiko salaketa judiziala daqoela

Ikastetxeak, betiere hezkuntza-ikuskaritzarekin koordinazioan, behin-behineko neurri batzuk hartuko ditu adingabea babesteko, eta arretaz begiraturako die salaketaren helburu den egoeraren inguruan frogak edo zantzuak izan daitezkeen seinaleei.

Babes-neurriak ikastetxean bertan hartuko dira, behar bezalako diskrezioz eta arduraz; horietan behar-beharrezko pertsonak baino ez dute esku hartuko.

4. HEZKUNTZA ARLOAN ESKUMENA DUEN SAILAREN ETA OSASUN-ZERBITZUEN ARTEKO KOORDINAZIOA

Esku-hartze goiztiarraren eta koordinatuaren bidez, beharrezko laguntza eman dakioko arazo hori sufritzen ari den adingabeari, bai eta bere familiari ere; horrenbestez, helburuak beti izan behar du haur edo nerabeari laguntza ematea eta egoera hori konpontzeko bidea bilatzea.

Hori dela eta, adingabeak bizi dituen arriskuak ebaluatu behar dira, familiarekin ondoko ikerketa eta segimendua egitea bultzatuko duen harremana ezartzea zein garrantzitsua den ahaztu gabe.

Osakidetzako zerbitzuen erakunde guztiek babesgabetasun-egoerei edo haurren eta nerabeen aurkako tratu txarren egoerei erantzuteko osasun-jarduketa protokoloa dute, eta osasun-zerbitzuek eta gizarte-zerbitzuek batera ekiten diote arazoari.

Protokolo honek bi egoera mota desberdinen aurrean ikastetxeetatik esku hartzeko modua jasotzen du:

4.1. Premiaz jarduteko eskatzen duten lesio fisikoak edo egoerak antzematea

Premiaz jarduteko eskatzen duten lesio fisikoak edo egoerak antzematen diren kasuetan, ikastetxeak, tutoreak edo adingabearen arduraduna den tutore profesionalak (betiere zuzendaritzarekin adostuta) haurra edo nerabea **larrialdietarako mediku-zerbitzura** (ospitalekoa) eramango du **edo larrialdietarako zerbitzura** deituko du, eta horiek jarriko dute martxan kasu horietarako ezarritako protokoloa. Osasun-zerbitzuek uste baldin badute adingabearen osotasuna arriskuan egon daitekeela, osasun-zentroan geratuko da, ezarriko diren babes-neurrien berri izan arte.

Ikastetxeak familiari emango dio lekualdatzearen berri –aldi berean edo haurra edo nerabea osasun-zentroan dagoenean–, legezko tutoreen erreakzio posibleak kontuan hartuta (ihes egiteko arriskua, medikuaren arreta ez jasotzeko arriskua etab.).

4.2. Premiazko osasun-jarduketa behar ez duten egoerak

Premiazko osasun-jarduketa behar ez duten tratu txarra, sexu-jazarpena eta/edo sexu-abusua dagoelako susmoa baldin badago, zentroak aurretik kontsulta egingo die Udalaren gizarte-zerbitzuei, eta horiek balioetsiko dute lehen mailako osasun-zerbitzuekin batera esku hartzeko aukera, horiek egingo baitute adingabearen eta bere familiaren bilakaeraren segimendua.

5. HEZKUNTZA ARLOAN ESKUMENA DUEN SAILAREN ETA ERTZAINZAREN/POLIZIAREN ARTEKO KOORDINAZIOA

5.1. Sarrera

Poliziak herritarrek beren eskubide eta askatasunez modu baketsuan gozaten dutela bermatu behar du. Eginkizun horrek are garrantzia handiagoa du, adingabeen eskubide eta askatasunak bermatu behar direnean; izan ere, adingabeak mendekotasun-egoeran bizi dira eta gizartearen etorkizuneko bilakaerari daude lotuta.

5.2. Prozedura eta koordinazio-jarraibideak

Ertzaintzak hezkuntza-arloan eskumena duen sailarekin koordinazio hobea izateko, ikastetxeen esku du **Ikerkuntza Kriminaleko eta Polizia Judizialeko Sail Nagusia, Pertsonen Arloaren** bidez; beraz, ikastetxeak tratu txarren, sexu-jazarpenaren eta/edo sexu-abusuaren eremuko delitu batekin lotura izan dezaketen gertakarien susmorik, zantzurik edo berririk duenean, informazio hori sail horretako agenteei bideratu ahalko die.

Salaketa-prozesuan, agenteek datuak batzen lagunduko dute, informazioa egituratzeko, eta, hala badagokio, hartuko diren neurriak orientatu ahalko dituzte, dela premiazko kasu bati erantzuteko, dela geroagoko ikerketak egiteko.

Zerbitzu horren bidez, arreta maila bera eman nahi zaio edozein ikastetxeri, EAEko edozein lekutan gertatzen dela ere.

Honako hauek dira harremanetarako telefono-zenbakiak:

Arloko arduraduna	24 orduko taldea
677 91 73 02	677 91 52 84 677 91 72 23

24 orduko taldearen premiazko jarduketarik behar ez den kasuetarako, honako hau da arloko arduradunaren helbide elektronikoa: jperso@ertzaintza.eus

5.3. Poliziak adingabeko biktimen edo babesgabezia-egoeran dauden adingabeen kasuan esku hartzeko jarraibideak

- **Biktimarentzako arreta:** Beste edozein jarduketatan bezala, lehenengo eta behin biktima artatu behar da, berehala; kasu honetan, adingabekoak. Behar duten laguntza eskaini behar zaie, mediku-zentro batera eraman, polizia-bulegoetara eta abar.
- **Informazioa batzea:** Jarraian, kasuarekin lotura duen informazio guztia batu behar da.
- **Zigor-arloko arau-haustea egotea:** Tartean diren helduek zigor-arloko arau-hausterik egin dutela susmatuz gero, ikerketak ezarritako prozedurari jarraituko dio, eta, horretarako, kautelazko neurri egokiak hartuko dira eta dagokion argiketa bideratuko da.
- **Gizarte-laguntza:** Adingabea bere aitaren, amaren edo familiartekoen zaintzapean geratu ezin denean edo hala egitea komeni ez denean, Aldundiko Adingabeen Zerbitzuarekin jarri beharko da harremanetan edo, hala badagokio, dagokion Udalaren laguntza-zerbitzuekin. Nolanahi ere, adingabea tratatu txar, sexu-jazarpen eta/edo sexu-abusuaren biktima denean eta horrek delitua ekar dezakeenean, kontuan hartu beharko dira instrukzio-epaileak –ikerketa bera zuzentzen duen organoa den aldetik– edo, hala badagokio, Fiskaltzak eman ditzakeen eginbide, jarraibide edo kautelazko neurri zehatzak.

6. HEZKUNTZA-ARLOAN ESKUMENA DUEN SAILAREN ETA FISKALTZAREN ARTEKO KOORDINAZIOA

Fiskaltzari dagokio justiziaren ekintza sustatzea, legezotasuna, herritarren eskubideak eta legeak babestutako interes publikoa defendatzeko.

Era berean, bere gain hartu, edo, hala badagokio, sustatu behar du jarduteko gaitasunik edo legezko ordezkariarik ez duten eta beraz beren kabuz jardun ezin duten pertsonen ordezkari eta defentsa. Gainera, lege zibilek ezartzen dituzten tutoretza-erakundeen eraketa sustatu behar du, eta pertsona babesgabeak babestea eta defendatzea helburu dutenetan parte hartu.

Hori dela eta, nabarmena da Fiskaltzak adingabeen babesgabezia edo tratu txar, sexu-jazarpen eta/edo sexu-abusuen kasuetan esku hartzeak zenbateko garrantzia duen.

6.1. Prozedura eta koordinazio-jarraibideak

Fiskaltzak, adingabeen babesgabezia edo tratu txar, sexu-jazarpen eta/edo sexu-abusuen kasuen berri duenean, salaketaren jatorria edozein dela ere, lege prozesalekin eta haurrak babesteko legeekin bat etorriz eta bere eskumenak baliatuta, bere ustez gertakariak ikertzeko beharrezkoa dena adostuko du, eta, ondorioz, haur edo nerabe baten aurkako ustezko tratu txarren edo sexu-abusuaren kasu batengatiko prozedura judiziala irekitzeko eskatu ahalko du.

Fiskaltzak, kasuaren premia maila kontuan hartuta, organo judizial bideratzaileari eskatu ahalko dio adingabea zaintzeko eta babesteko egokitzat jotzen dituen neurriak hartzeko; hala ere, kasuaren berri eman beharko dio Haurrak eta Nerabeak Artatzeko Lurralde Zerbitzuari, egokitzat jotzen duen erabakia har dezan.

Ustezko tratu txar emailearen edo erasotzailearen aurka prozedura judiziala irekitzen denean, Fiskaltzak hezkuntzako lurralde-ordezkaritari emango dio horren berri, zerbitzu eskudunekin koordinazioan adingabeari hezkuntza-eremuan babesa eman ahal izateko beharrezkoak diren neurriak hartzeko. Era berean, Fiskaltzak lurralde-ordezkarria espedienteko izapideen edo aldaketa esanguratsuen jakitun izango du, ondorioz jardun ahal izateko.

7. HEZKUNTZA-ARLOAN ESKUMENA DUEN SAILAREN ETA EPAITEGIAREN ARTEKO KOORDINAZIOA

Lehenengo eta behin, jaso behar da protokolo honetatik ezin dela jarraibidetik eman eta ezin direla mugatu epaile eta magistratuen jarduketa prozesalak, arau prozesalek xedatzen dutenaren arabera.

7.1. Prozedura eta koordinazio-jarraibideak

Salaketa Ertzaintzan, Polizian, hezkuntza-arloko sail eskudunear, Hezkuntza Ikuskaritzan edo ikastetxean, oinarrizko gizarte-zerbitzuetan eta abarretan jartzen bada, epaitegira eramango da, dauden froga eta/edo ebidentziekin.

Salaketa adingabe baten aurkako eta eskola-testuinguruan gertatzen diren tratu txar, sexu-jazarpen eta/edo sexu-abusu egoeren ingurukoa izango da, betiere jakinez gero tratu txar emaileak gurasoak ez direla.

Egoera horietan, haur edo nerabea babestu behar da, familiari informazioa eman behar zaio eta beste erakunde batzuen jarduketa behar da, besteak beste, Ertzaintzarena, Fiskaltzarena, epaitegiarena eta abar. Beraz, prozedura berezia izango dute.

Gurasoak badira adingabearen babesgabetasunaren eragileak, orduan gizarte-zerbitzuek hartuko dute protagonismoa, eta horien artean dagoeneko ezarritako prozedurak jarraituko dituzte.

Instrukzio judizialaren fasearen hasieran, gertakari horren berri eman beharko zaio hezkuntzako lurralde-ordezkaritari, zerbitzu eskudunekin koordinazioan hartu ahal izateko haurrari edo nerabeari hezkuntza-eremuan babesa emateko beharrezko neurriak. Era berean, lurralde-ordezkarria espedienteko izapideen edo aldaketa esanguratsuen jakitun izango du, ondorioz jardun ahal izateko.

Gainera, babesari dagokionez, epaitegiaren eta Haurrak eta Nerabeak Artatzeko Lurralde Zerbitzuaren jarduketan arteko beharrezko koordinazioa lortu behar da, eta, beraz, komeni da epaitegiak jakinaraztea prozedura hasi dela eta, bidezkoa bada, artxibatu dela.

8. KOORDINAZIO-PROTOKOLOAREN SEGIMENDUA

Protokoloaren ebaluazioa eta segimendua

Urtero, Segimendu Batzordeak ebaluazioa egingo du, jakiteko protokoloa hura sortzeko helburu izan ziren beharretara egokitzen ote den eta, hala badagokio, aldaketa egokiak egingo ditu.

Protokoloaren funtzionamenduaren ebaluazioa egiteko, gutxienez, saio bat egingo da urtean. Saioa aipatutako batzordeko presidentek deituko du.

Segimendu Batzordearen eraketa:

- Hezkuntzako sailburuordea (presidente-lanak egingo ditu)
- Haurren politikaren inguruan eskumena duen zuzendaria
- Hezkuntzako ikuskatzaile nagusia
- Lurraldeko gizarte-zerbitzuen ordezkari bat
- Oinarrizko gizarte-zerbitzuen ordezkari bat
- Osasun Saileko ordezkari bat.
- Segurtasun Saileko ordezkari bat
- Hezkuntzako ikuskatzaile nagusiak izendatutako hezkuntza-arloko ikuskatzaile nagusi bat; idazkari-lanak egingo ditu

Segimendu Batzordea honen arduradun izango da:

- Jarduketan koordinazioa
- Sail bakoitzaren protokolo berezien koordinazioa
- Behatokia:
 - Tratu txar, sexu-jazarpen eta/edo sexu-abusuaren datuak
 - Jarduketan eraginkortasunari buruzko datuak
 - Datuen analisia oinarri hartuta eginiko proposamenak

ERANSKINAK

I. ERANSKINA: ESKOLAKO TRATU TXARREN, SEXU-JAZARPENAREN ETA/EDO SEXU-ABUSUAREN AURKAKO SALAKETAK DAUDENERAKO JARDUKETEN ESKEMA OROKORRA

ESKOLAKO TRATU TXARRAK, SEXU-JAZARPENAREN ETA/EDO SEXU-ABUSUA GELDIARAZTEKO JARDUKETAK			
Antzematea	Salaketa ertzain-etxean, polizia-etxean edo dagokion epaitegian egin behar da.		
	<table border="1"> <tr> <td>Behar bezala oinarritutako ebidentziak</td> <td>Tratu txarren eta/edo sexu-abusuaren</td> </tr> </table>	Behar bezala oinarritutako ebidentziak	Tratu txarren eta/edo sexu-abusuaren
Behar bezala oinarritutako ebidentziak	Tratu txarren eta/edo sexu-abusuaren		
Jakinarazpenak / informazioak	<table border="1"> <tr> <td>Salaketa jasotzen duen erakundeak epaitegiari jakinarazten dio, eta hark hezkuntzaren arloko eskumenerako sailari</td> <td>Salaketa jasotzen duen erakundeak horren berri eman behar dio hezkuntzaren arloan eskumena daukan sailari</td> </tr> </table>	Salaketa jasotzen duen erakundeak epaitegiari jakinarazten dio, eta hark hezkuntzaren arloko eskumenerako sailari	Salaketa jasotzen duen erakundeak horren berri eman behar dio hezkuntzaren arloan eskumena daukan sailari
Salaketa jasotzen duen erakundeak epaitegiari jakinarazten dio, eta hark hezkuntzaren arloko eskumenerako sailari	Salaketa jasotzen duen erakundeak horren berri eman behar dio hezkuntzaren arloan eskumena daukan sailari		
Eginbide judizialak,...	<table border="1"> <tr> <td>Babes- eta zigor-sistemaren esku-hartzea hasieratik, eta biktimaren berehalako babesa. Kasu horretan, eginbideak eta/edo ikerketa-ildoak irekiko dira salaketaren ondoren irekitako instrukzio judizialen baitan.</td> <td>Sistema judiziala: eginbideak eta/edo ikerketa-ildoak irekiko dira salaketaren ondoren irekitako instrukzio judizialen baitan.</td> </tr> </table>	Babes- eta zigor-sistemaren esku-hartzea hasieratik, eta biktimaren berehalako babesa. Kasu horretan, eginbideak eta/edo ikerketa-ildoak irekiko dira salaketaren ondoren irekitako instrukzio judizialen baitan.	Sistema judiziala: eginbideak eta/edo ikerketa-ildoak irekiko dira salaketaren ondoren irekitako instrukzio judizialen baitan.
Babes- eta zigor-sistemaren esku-hartzea hasieratik, eta biktimaren berehalako babesa. Kasu horretan, eginbideak eta/edo ikerketa-ildoak irekiko dira salaketaren ondoren irekitako instrukzio judizialen baitan.	Sistema judiziala: eginbideak eta/edo ikerketa-ildoak irekiko dira salaketaren ondoren irekitako instrukzio judizialen baitan.		
Erakunde/estamentu bakoitzak hartu beharreko neurriak	<table border="1"> <tr> <td><u>Hezkuntzaren arloan eskumena duen sailak</u> haurra edo nerabea babesteko behar diren neurriak hartuko ditu modu koordinatuan. <u>Ikastetxeak</u> egiten ari diren jarduketan berri emango dio, bidezkoa bada, adingabearen familiari.</td> <td><u>Hezkuntzaren arloan eskumena duen sailak</u>, aplika daitekeen esku-hartze penala alde batera utzi gabe, berehalakoan eman beharko dio babesa haur edo nerabeari. Horretarako, adingabea babesteko neurriak hartuko ditu modu koordinatuan. <u>Ikastetxeak</u>, bidezkoa bada, egiten ari diren jarduketan berri emango dio haur edo nerabearen familiari.</td> </tr> </table>	<u>Hezkuntzaren arloan eskumena duen sailak</u> haurra edo nerabea babesteko behar diren neurriak hartuko ditu modu koordinatuan. <u>Ikastetxeak</u> egiten ari diren jarduketan berri emango dio, bidezkoa bada, adingabearen familiari.	<u>Hezkuntzaren arloan eskumena duen sailak</u> , aplika daitekeen esku-hartze penala alde batera utzi gabe, berehalakoan eman beharko dio babesa haur edo nerabeari. Horretarako, adingabea babesteko neurriak hartuko ditu modu koordinatuan. <u>Ikastetxeak</u> , bidezkoa bada, egiten ari diren jarduketan berri emango dio haur edo nerabearen familiari.
<u>Hezkuntzaren arloan eskumena duen sailak</u> haurra edo nerabea babesteko behar diren neurriak hartuko ditu modu koordinatuan. <u>Ikastetxeak</u> egiten ari diren jarduketan berri emango dio, bidezkoa bada, adingabearen familiari.	<u>Hezkuntzaren arloan eskumena duen sailak</u> , aplika daitekeen esku-hartze penala alde batera utzi gabe, berehalakoan eman beharko dio babesa haur edo nerabeari. Horretarako, adingabea babesteko neurriak hartuko ditu modu koordinatuan. <u>Ikastetxeak</u> , bidezkoa bada, egiten ari diren jarduketan berri emango dio haur edo nerabearen familiari.		

ESKOLAKO TRATU TXARRAK, SEXU-JAZARPENA ETA/EDO SEXU-ABUSUA GELDIARAZTEKO JARDUKETAK	
Antzematea	<p>Ikastetxeak kasua antzematen du edo salaketa jartzen da hezkuntzaren arloan eskumena duen sailean, Hezkuntzako Ikuskaritzan edo ikastetxean, gizarte-zerbitzuetako zentroetan...</p> <p>Behar bezala oinarritutako ebidentziak</p> <p>Tratu txarren eta/edo sexu-abusuaren</p>
Jakinarazpenak / informazioak	<p>Salaketa jasotzen duen erakundeak Adingabeen Fiskaltzari helaraziko dio, frogekin eta/edo ebidentziekin batera Salaketa jaso duen erakundea ez bada hezkuntzaren arloan eskumena duen saila, azken horri egoeraren berri eman beharko dio Adingabeen Fiskaltzak</p> <p>Salaketa jasotzen duen erakundeak horren berri eman behar dio hezkuntzaren arloan eskumena daukan sailari</p>
Eginbide judizialak,...	<p><u>Sistema judiziala</u>: babes- eta zigor-sistemaren esku-hartzea hasieratik, eta biktimaren berehalako babesa. Kasua aztertu ondoren, eginbideak eta/edo ikerketa-ildoak irekiko dira salaketaren ondoren irekitako instrukzio judizialen baitan.</p>
Erakunde/estamentu bakoitzak hartu beharreko neurriak	<p><u>Hezkuntzaren arloan eskumena duen sailak</u> haurra edo nerabea babesteko behar diren neurriak hartuko ditu modu koordinatuan.</p> <p><u>Ikastetxeak</u> egiten ari diren jarduketan berri emango dio, bidezkoa bada, adingabearen familiari.</p> <p><u>Hezkuntzaren arloan eskumena duen sailak</u>, egon daitekeen esku-hartze penala alde batera utzi gabe, berehalakoan eman beharko dio babesa haur edo nerabeari. Horretarako, adingabea babesteko neurriak hartuko ditu modu koordinatuan.</p> <p><u>Ikastetxeak</u>, bidezkoa bada, egiten ari diren jarduketan berri emango dio haur edo nerabearen familiari.</p>

ESKOLAKO TRATU TXARRAK, SEXU-JAZARPENA ETA/EDO SEXU-ABUSUA GELDIARAZTEKO JARDUKETAK Ustez tratu txarrak eta/edo jazarpena eragin duen pertsona ikastetxeko langilea da	
Antzematea	<p style="text-align: center;">Salaketa ertzain-etxean, polizia-etxean edo dagokion epaitegian egin behar da.</p> <p>Behar bezala oinarritutako ebidentziak</p> <p>Tratu txarren eta/edo sexu-abusuaren susmoa bakarrik dago</p>
Jakinarazpenak / informazioak	<p>Salaketa jasotzen duen erakundeak epaitegiari jakinarazten dio, eta hark hezkuntzaren arloko eskumeneko sailari</p> <p>Salaketa jasotzen duen erakundeak horren berri eman behar dio hezkuntzaren arloan eskumena daukan sailari</p>
Eginbide judizialak,...	<p>Babes- eta zigor-sistemaren esku-hartzea hasieratik, eta biktimaren berehalako babesa. Kasu horretan, eginbideak eta/edo ikerketa-ildoak irekiko dira salaketaren ondoren irekitako instrukzio judizialen baitan.</p> <p>Sistema judiziala: eginbideak eta/edo ikerketa-ildoak irekiko dira salaketaren ondoren irekitako instrukzio judizialen baitan.</p>
Erakunde/estamentu bakoitzak hartu beharreko neurriak	<p>Hezkuntzaren arloan eskumena duen <u>sailak</u>, kautela-neurri gisa, eten egingo ditu aldi baterako tratu txarrak eta/edo jazarpena eragin dituen funtzionarioaren zereginak, bat etorritik indarreko administrazio-prozedurarekin eta diziplinazko araubidearekin; horrez gain, eskumeneko zerbitzuekin koordinatuta, haur edo nerabeari babesa emateko beharrezko neurriak hartuko ditu. Funtzionarioari diziplinazko administrazio-espeditentea irekitzen bazaio, hori gelditu egingo da irekitako prozesu judiziala amaitu arte. Prozesua amaitzen denean, diziplinazko espedienteak aurrera jarraituko du.</p> <p><u>Ikastetxeak</u> egiten ari diren jarduketan berri emango dio, bidezkoa bada, adingabearen familiari, eta kasuarekin loturan adierazgarria izan daitekeen informazioa bilduko du, zuhurki.</p> <p>Hezkuntzaren arloan eskumena duen <u>sailak</u>, egon daitekeen esku-hartze penala alde batera utzi gabe, berehalakoan eman beharko dio babesa haur edo nerabeari. Hori dela eta, eginbide judizialak irekitzen badira, eten egingo ditu aldi baterako tratu txarrak eta/edo jazarpena eragin dituen funtzionarioaren zereginak, bat etorritik indarreko administrazio-prozedurarekin eta diziplinazko araubidearekin; horrez gain, eskumeneko zerbitzuekin koordinatuta, adingabeari babesa emateko beharrezko neurriak hartuko ditu.</p> <p>Eginbiderik ireki ez bada edo kasua artxibatu egin bada, berdin-berdin hartuko dira haur edo nerabea babesteko eta dagokion funtzionarioa zaintzapean edukitzeko neurriak.</p> <p><u>Ikastetxeak</u>, bidezkoa bada, egiten ari diren jarduketan berri emango dio adingabearen familiari.</p>

ESKOLAKO TRATU TXARRAK, SEXU-JAZARPENEA ETA/EDO SEXU-ABUSUA GELDIARAZTEKO JARDUKETAK Ustez tratu txarrak eta/edo jazarpena eragin duen pertsona ikastetxeko langilea da	
Antzematea	<p style="text-align: center;">Salaketa jartzen da hezkuntzaren arloan eskumena duen sailean, Hezkuntzako Ikuskaritzan edo ikastetxean, gizarte-zerbitzuetako zentroetan...</p> <p style="text-align: center;">Behar bezala oinarritutako ebidentziak</p> <p style="text-align: center;">Tratu txarren eta/edo sexu-abusuaren susmoa bakarrik dago</p>
Jakinarazpenak / informazioak	<p>Salaketa jasotzen duen erakundeak Adingabeen Fiskaltzari helaraziko dio, frogekin eta/edo ebidentziekin batera Salaketa jaso duen erakundea ez bada hezkuntzaren arloan eskumena duen saila, azken horri egoeraren berri eman beharko dio Adingabeen Fiskaltzak</p> <p>Salaketa jasotzen duen erakundeak horren berri eman behar dio hezkuntzaren arloan eskumena daukan sailari</p>
Eginbide judizialak,...	<p><u>Sistema judiziala</u>: babes- eta zigor-sistemaren esku-hartzea hasieratik, eta biktimaren berehalako babesa. Kasu horretan, eginbideak eta/edo ikerketaildoak irekiko dira salaketaren ondoren irekitako instrukzio judizialen baitan. Adingabeen Fiskaltzak, kasua aztertu ostean, prozedura judizial bat irekiko du ustez tratu txarrak edo abusuak eragin dituen funtzionarioaren aurka.</p>
Erakunde/estamentu bakoitzak hartu beharreko neurriak	<p><u>Hezkuntzaren arloan eskumena duen sailak</u>, kautela-neurri gisa, eten egingo ditu aldi baterako jazarpena eragin duen funtzionarioaren zereginak, bat etorritik indarreko administrazio-prozedurarekin eta diziplinazko araubidearekin; horrez gain, eskumeneko zerbitzuekin koordinatuta, haur edo nerabeari babesa emateko beharrezko neurriak hartuko ditu. Funtzionarioari diziplinazko administrazio-espeditentea irekitzen bazaio, hori gelditu egingo da irekitako prozesu judiziala amaitu arte. Prozesua amaitzen denean, diziplinazko espeditenteak aurrera jarraituko du.</p> <p><u>Ikastetxeak</u>, bidezkoa bada, egiten ari diren jarduketan berri emango dio haur edo nerabearen familiari.</p> <p><u>Hezkuntzaren arloan eskumena duen sailak</u>, egon daitekeen esku-hartze penala alde batera utzi gabe, berehalakoan eman beharko dio babesa haur edo nerabeari. Hori dela eta, eginbide judizialak irekitzen badira, eten egingo ditu aldi baterako tratu txarrak eta/edo jazarpena eragin dituen funtzionarioaren zereginak, bat etorritik indarreko administrazio-prozedurarekin eta diziplinazko araubidearekin; horrez gain, eskumeneko zerbitzuekin koordinatuta, adingabeari babesa emateko beharrezko neurriak hartuko ditu.</p> <p>Eginbiderik ireki ez bada edo kasua artxibatu egin bada, berdin-berdin hartuko dira adingabea babesteko eta dagokion funtzionarioa zaintzapean edukitzeko neurriak.</p> <p><u>Ikastetxeak</u>, bidezkoa bada, egiten ari diren jarduketan berri emango dio haur edo nerabearen familiari.</p>



II. ERANSKINA: DOKUMENTUEN EREDUAK

II.1 eranskina

HAURTZARO ETA NERABEZAROKO ARRISKU-EGOERAK JAKINARAZTEKO FITXA

Data

Jakinarazpena egiten duen edo egoera bideratzen duen pertsonaren datuak:

Izen-deiturak		Zerbitzua
Kargua edo lanpostua		Tel.
Helbidea	Faxa	Helbide elektronikoa

Adingabeen datuak:

Izen-deiturak	Jaioteguna	Generoa	Nazionalitatea

Adingabeen helbidea:

Zein da haien ohiko helbidea?
Non daude orain?

Arduradunak:

Izen-deiturak	Senidetasuna	Helbidea	Tel.

Beste senide batzuk:

Izen-deiturak	Senidetasuna	Helbidea	Tel.



Jakinarazpenaren arrazoa (deskribapen laburra). Noiztik dugu egoera honen berri eta zer maiztasunekin gertatzen da?

- Kalte- edo ondoez-adierazleak hurrengan (fisikoak, jarrerari dagozkionak, garapen kognitiboari dagozkionak, berdinekiko eta helduekiko harremanetan ikusitakoak...).
- Familiari eragiten dioten beste arazo esanguratsu batzuk.
- Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek hurrekiko duten jarrera

- Adingabearen arduradunen eta jakinarazpena egiten duen ikastetxearen/profesionalaren arteko harreman mota
- Jakinarazpena egin duen ikastetxeak/profesionalak arazo honen harira egindako jarduketak (gurasoekin, haurrekin beste erakunde batzuekin...) eta lortutako emaitzak



Arduradunek badute jakinarazpen honen berri? Nola erreakzionatu dute informazio hori jasotzean? Gizarte-zerbitzuek emandako laguntza jasotzeko prest daude? Arazo/zailtasunaren kontzientzia maila

Garrantzitsutzat jotzen den bestelako informazioa

.....
Sinadura

.....
Sinadura

II.2 eranskina

GURASOEI JAKINARAZTEKO IDATZIA

Jakinarazpenaren data

.... jaun-andreak,

Jakinarazten dizuegu ikastetxe honek Gizarte Zerbitzuei eman diela zuen seme/alaba -----
------(r)en egoeraren berri, egoera hori balora dezaten eta, egokituz jotzen badute, esku har dezaten, antzemandako arazoak konpontze aldera.

- -----(e)ko Udal Gizarte Zerbitzuak
- Foru Aldundiko Haur eta Nerabeen Babeseko Zerbitzua ⁷
- -----(e)ko Guardiako Epaitegia
- -----(e)ko Ertzaintzaren polizia-etxea ⁸

Jakinarazpen hau Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko Legearen (otsailaren 18ko 3/2005) 25.2. artikuluan xedatutakoari jarraikiz egin da: "...hezkuntza-zentroetako titularrek eta langileek adingabeen babesaren arloan eskumena duten herri-administrazioei jakinarazi behar dizkiete, edo, beharrezkoa bada, Fiskaltzari edo epaileari, haurren babesgabetasuna ekar dezaketen egitateak".

Ikastetxearen jakinarazpenaren ondoren jarraituko den prozesuari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, jarri harremanetan aipatutako Gizarte Zerbitzuekin eta/edo _____ko Foru Aldundiko Haur eta Nerabeen Babeseko Zerbitzuarekin.

Begirunez,

SIN.:

⁷ Bete laukia X batekin edo aipatu bakarrik zein gizarte-zerbitzuri egin zaion jakinarazpena, eta bestea kendu

⁸ Bete laukia X batekin edo aipatu bakarrik zer instantzian jarri den salaketa, eta bestea kendu

II.3 eranskina

JARRAIPENA ELKARLANEAN EGITEKO ESKAERA

XXX Ikastetxea
 Zuzendaritza

_____ko Foru Aldundiko Haurren eta Nerabeen Babeseko Zerbitzua, haurren eta nerabeen babesean dituen eskumenak gauzatzuz, behean adierazten den eta zuen ikastetxean ikasten ari den adingabearen egoeraren jarraipena egiten ari da, adingabearen inguruko ikerketa eta balorazio prozesu bat burutu ondoren:

- **Ikaslearen izen-abizenak / jaiotze-data / gurasoen edo legezko arduradunen datuak.**

Eusko Legebiltzarraren 2005eko otsailaren 18ko 3/05 Legeak, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babestekoak, 25.2 artikuluan xedatutakoaren arabera (EHAA, 59 zk., 2005eko martxoaren 30ekoa), horrelako prozesu batean ikastetxeetako titularrek eta langileek Foru Aldundiari laguntza emateko betebeharrak dute gerta litezkeen babesgabezia egoerak saihesteko eta konpontzeko; hala, esku hartzeen kalitatea eta eraginkortasuna bermatzeko beharrezkoak diren datuak eta informazioak eman beharko dituzte, betiere diskrezioz jokatzuz.

Laster, haurraren jarraipena egingo duten teknikariak zuekin harremanetan jarriko dira goian adierazitako gaiaren inguruan zuen lankidetzak eta informazioa eskatzeko.

- **Kasuan arituko diren profesionalak eta telefonoa.**

Prozedura honen inguruko zalantzarik argitu nahi izanez gero edo kasuari dagokionez garrantzitsua izan daitekeen informaziorik eman nahi izanez gero, profesional horiekin harremanetan jar zaitezketek.

Aldez aurretik zuen laguntza eskertuz, adeitsuki agurtzen zaituztet.

El Servicio de Protección a la Infancia y la Adolescencia de la Diputación Foral de _____, en el ejercicio de sus competencias en materia de protección a la infancia y adolescencia, esta llevando a cabo un proceso de seguimiento de la situación en la que se encuentra la siguiente persona menor de edad que ha sido escolarizada en su centro escolar, tras realizar un proceso de investigación y valoración en torno al mismo:

- **Nombre y apellidos del/la alumno/a/ fecha de nacimiento/ datos de identidad de sus progenitores o responsables legales**

De conformidad con el Art. 25.2 de la Ley del Parlamento Vasco 3/2005, de 18 de febrero, de Atención y Protección a la Infancia y adolescencia (BOPV nº 59, de 30 de marzo de 2005) dentro de un proceso de este tipo los titulares de los centros educativos y el personal de los mismos están obligados a colaborar con la Diputación Foral para evitar y resolver situaciones de posible desprotección, debiendo de comunicar los datos e informaciones que resulten necesarios y suficientes para garantizar la calidad y la eficacia de las intervenciones, actuando con la debida reserva.

Próximamente los/as técnicos/as encargados/as de realizar el seguimiento de este niño/a se pondrán en contacto con usted/es para solicitarle/s su colaboración e información en el sentido apuntado anteriormente.

- **Profesionales asignados/as al caso y teléfono.**

En el caso de que deseen aclarar cualquier duda con respecto a este procedimiento o comunicar información que resulte relevante en torno al caso, pueden ponerse en contacto con los citados/as profesionales:

Agradeciendo de antemano su colaboración, les saluda atentamente

Sin.:

Haurren eta Nerabeen Babeseko Zerbitzua – Servicio de Protección a la Infancia y la Adolescencia

25. artikulua.- *Erakundeen arteko lankidetzak eta norbanakoen lankidetzak.* "2.- Halaber, hezkuntza-zentroetako titularrek eta langileek adingabeen babesean arloan eskumena duten herri-administrazioei edo, beharrezkoa bada, Fiskaltzari edo epaileari jakinarazi behar dizkiete haurrenganako tratu txarrak, haurren babesgabetasuna edo horien arrisku-egoera ekar dezaketen egitateak, eta halaber adierazi beharko dizkiete horrelakoetan behar diren esku-hartzeak eraginkorrak eta kalitatezkoak izango direla bermatzeko behar diren datu guztiak; orobat, elkarlanean aritu beharko dute horrelako egoerak eragozteko eta konpontzeko, baina betiere adingabeen lehentasunezko interesak edukiko dira kontuan."

25. artikulua.- Erakundeen arteko lankidetzak eta gizarte-kohesioa "2.- Asimismo, los titulares de los centros educativos y el personal de los mismos están obligados a poner en conocimiento de las administraciones públicas competentes en materia de protección de personas menores de edad, o cuando sea necesario del ministerio fiscal o de la autoridad judicial, aquellos hechos que puedan suponer malos tratos o la existencia de desprotección o riesgo infantil, debiendo comunicar los datos e informaciones que resulten necesarios y suficientes para garantizar la calidad y la eficacia de las intervenciones, así como colaborar con las citadas administraciones para evitar y resolver estas situaciones, si bien deberán tenerse siempre en cuenta los intereses prioritarios de las personas menores de edad."



II.4 eranskina

JAKINARAZPENA EGIN DUENARI ZUZENDUTAKO ARRISKU- EDO BABESGABETASUN-EGOEREI BURUZKO OFIZIOA/JAKINARAZPENA

Hartzailea

Jaun/andre horiek,

.....(e)(a)n, adingabeari buruzko arrisku-egoera posible baten jakinarazpen-orria jaso dugu(e)ko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan.

Honen bidez, eskerrak eman nahi dizkizuegu adingabe(ar)engatik interesa erakusteagatik eta zerbitzu honi laguntzeagatik. Jakinarazi nahi dizuegu, halaber, haurrei eta nerabeei eragiten dieten arrisku-egoeretan esku hartzeko ezarritako Udal Protokoloarekin bat etorriz,

(Aukeratu 3 ataletako bat, eta kendu gainerakoak)

- kasua ikertzeko eta baloratzeko prozesuari ekin diogula; horrenbestez, laster **zuekin harremanetan jarriko gara, jasotako informazioa egiaztatzeko eta egiten ditugun aurrerapenen berri emateko.**

Zerbitzu honetan, gizarte-langile hau arduratuko da kasuaz:

- une honetan honako esku-hartze hauek gauzatzen ari garela adingabeekin eta haien familiekin (aukeratu esku-hartzeak): gizarte eta hezkuntzaren arloko esku-hartzea, arreta psikosoziala, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak egindako jarraipena. Horrenbestez, laster zuekin harremanetan jarriko gara, jarduketak koordinatzeko.

Zerbitzu honetan, gizarte-langile hau arduratuko da kasuaz:.....

-(e)(a)n, itxi egin da adingabe hauen espedientea, eta esku-hartzea eskatu zaio (aukeratu) Aldundiko Haurren Zerbitzuari, Bilboko Adingabeen Fiskaltzari eta(e)ko Udaleko Gizarte Zerbitzuei (harremanetarako pertsona:).

Eskerrik asko berriro ere zuen interesagatik, eta espero dugu ezartzen den lankidetzaren bateragarria izatea adingabeen eta haien guraso/titularren intimitatea eta haien informazioaren konfidentziasuna gordetzeko eskubidearekiko errespetuarekin. Adeitasunez agurtzen zaituztet,

Gizarte-langilea

.....

Bidaltzailea:

Oinarrizko GZ

Helbidea

Harremanetarako telefonoak

II.5 eranskina

IKASTETXEARI ZUZENDUTAKO ESKAERA, HAURRA BERTATIK ATERATZEKO

200_ko ren (a)n

Zuzendari jauna/andrea:

_____-ko Foru Aldundiak, Kode Zibilaren 172. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko 2005eko otsailaren 18ko Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko Legearen 60. artikuluan oinarrituta, ko ... zk. Foru Aginduaren bitartez (honekin batera dihoakizue kopia), erabaki hau hartu du:

– (adingabearen izen-abizenak)

babes egoeran deklaratzera eta bere tutoretzapean hartzea, guraso agintea aldi baterako etenda.

Foru Aldundiko Haurren Babes Zerbitzuak laguntza eskatzen dio ikastetxe horri, aipatu den ikaslea izendatu zaion haur babeseko zentrorera eramateko. Eskaera EAEko 2005eko otsailaren 18ko Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko Legearen 25.2 artikuluan oinarrituta egiten du.

Adingabea haur babeseko zentrorera eramatea egun honetan ordu honetan egingo da:,

Adingabea eramateko, Foru Aldundi honen baimena duten teknikariak bertaratuko dira.

